

Rufi Etxeberria

«Negoziazio mahaitik altxatzerako ez da norberaren estrategian soilik pentsatu behar, herri estrategian baizik»



- **Euskara eskolan** Arrue Ikerketatik abiatuta, gizarte inertziei nola aurre egin
- **Petronor** Herritarrek urtebete daramate hodei toxikoaren azalpenik jaso gabe
- **Kulturtick** Kultur zaleen kluba
- **Net Hurbil** Langileak autogestiorantz Grezian



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 112 dokumental eskura

Amerikanuak
 Anuken egia
 Arrhash, pozoina
 Banlieues. Pariseko errebotak
 Basque hotel
 Bidaia Intimoak
 Botilen hilerria
 Companys eta Agirre azken erbesterantz
 Debekatuta dago oroitzea
 Egunero
 Elburua Gernika
 Euskal Herria: Ezkutuko zorra
 Euskararen jatorria: Enigma europar bat
 Garrasia Saharatik
 Gudari baten egunerokoa
 Haizea eta sustraiak
 Insumisioa. 20 urte desobeditzen
 Iparraldea XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
 Iruña-Veleiako misterioa
 Itoitz hustu arte
 Itsasoren alaba
 Langile autonomia
 Leku hutsak, hitz beteak
 Nire bizi osoa espetxean
 Nömadak Tx
 Oroitarria
 Perurena
 Pluja seca - Euri lehorra
 Sagarren denbora
 Sahara marathon
 Salda badago
 Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
 The Yes Men fix the world
 Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

EGUZKI BIDEOAK *elkarlanean*





Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAKO EDUKIAK KOPIAITU, MOLDATU, ZABALDU ETA ARGITARA DITZAKEZU, GURE EGILETZA AITORTU ETA BALDINTZA BERETAN EGINEZ GERO.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.arga.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@arga.com. Harpidetzak: harpidetza@arga.com. Erredakzioa: kazeta@arga.com. Interneten: www.arga.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko martxoaren 10a, 2.360. zenbakia

ASTEKO GAIA

EUSKARAREN ERABILERA Eskola, joera nagusia eteteko lanean. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 4

PERTSONAIA

RUFI ETXEBERRIA: «Konbentzituta nago gatazkaren ondorioen arloan irtenbidea ikusiko dugula». SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

ALBERTO RUIZ DE ALEGRIA: «Gurasoek batzuetan dramatizatu egiten dute nerabearen portaera». MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 16

IRITZIAREN LEIHOA

KOSOVO, GARBIKETA ETNIKO IA PERFEKTUA

ASIER BLAS MENDOZA / 20

DANTZA JAUIZIAK ANUNTXI ARANA / 22

AMAZON, INPERIO EZKUTUA GORKA BEREZIARTUA / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Hazia. IXIAR ROZAS / 22

BERTSO BERRIAK Wert erreformari jarriak. IÑAKI MURUA / 23

ZIRTAK Autobusa. BEÑAT SARASOLA / 24

ERDIKO KAIERA

KULTURTICK Kulturarekiko konpromisoak badu saririk. MYRIAM GARZIA / 26

ION MARKEL SAEZ DE URABAIN: «Argazki bakoitzeko istorio bat kontatu nahi izaten dut». GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 29

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URIA / 32

MUSIKA OLATZ KORTA / 33

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Aresti eszenatokian, Oskorriren eskutik. JOXEMI SAIZAR / 35

OSASUNA JABIER AGIRRE / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

PETRONOR Hodei toxikoa: urtebete erantzukizunak argitu barik. UNAI BREA / 39

ITALIA Beppe Grilloren ezustekoa, mesfidantzak eta aukerak. GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 43

HIZKUNTZA POLITIKA MARKINA-XEMEINEN

Udalak eta herritarrek euskara plana adostuko dute. MARIJO DEOGRACIAS / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 46

NET HURBIL Viomihaniki: nagusiak ezin badu, geuk eginen dugu. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

EUSKARAREN ERABILERA

Eskola, joera nagusia eteteko lanean

Ene, zarra-zarra ari dira ikasleak gaztelaniaz, non eta eskolako jolaslekuan. Irakasleek badakite gelan eta gelatik kanpo zein hizkuntzatan ari diren ikasleak, eta kezka nabaria da. Arrue ikerketak susmoak baieztatu ditu. Emaitzak liseritu, interpretatu eta aurrera begiratzeko garaia da. Ariketa hori egiten lagundu digute Helena Artanok, Iñaki Biainek eta Itziar Idiazabalek.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

ARRUE IKERKETA Eusko Jaurlaritzak, Soziolinguistika Klusterrak eta ISEI-IVEIk elkarlanean ondu dute. Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleei (9-10 urte) eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailakoei (13-14 urte) galdeketa egin diete eskola giroko hizkuntza erabileraz informazio mardula jaso asmoz. Euskal Autonomia Erkidegoko 35.844 ikaslerengana jo dute.

Emaitzetan, oro har, apenas den harritzekorik, bitxikeriarik, irakasleek egunero entzuten dutena eta ikerketaren datuak bat datoz ideia orokorretan. Ikerketaren emaitzak argitara eman eta berehala, Soziolinguistika Klusterrak egun beteko jardunaldiak antolatu zituen. Han aipatu zen halako zerbait pentsatzeko arriskua: hainbeste ikerketa lan horretarako, bagenekien-eta, hizkuntza ereduak eredu, ikasleek guk nahi baino gehiago hitz egiten dutela gaztelaniaz ikasgelan eta jolastokian, bai beraien artean baita irakasleekin ere (ikus grafikoak ondoko orrialdean). Hezkuntza eta hizkuntza alorreko adituz eta arituz jositako jardunaldi haietan, intuizioak alboratu eta ikerketen lerroa sendotzea aldarrikatu zuten, nahiz eta azterketok usteak baieztatzeko baino ez balio.

Besterik espero al genezakeen?

9-10 urtekoen %36k egiten du elkarren artean beti euskaraz ikasgelan; jolastokian %17k. 13-14 urtekoen %14k egiten du beti euskaraz ikasgelan, eta %11k jolastokian. Datu gutxi hauek –eta 76 orrialdeko Arrue proiektuaren txosteneko gainerakoek– botila erdi beteta edo erdi hutsik ikusteko aukera ematen digute. Milaka irakasle euskaldundu, hizkuntza ereduaren sistema ezarri, eskolan

belaubaldi berria euskaldunduko zenaren esperantza izan... eta orain hau. Irakaslearen magaletik zenbat eta urrunago orduan eta gaztelania gehiago. Umea gaztetu ahala euskara bazterrerago. Etsigarria. Baldin eta botila erdi hutsik ikusten bada. Bestelako irudia eman zuten hizlariek Soziolinguistika Klusterrak antolatutako jardunaldi haietan.


Gizartearen jokabideari hautsi nahian

Gotorleku hitza darabil Mikel Zalbide Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara Zerbitzu buruak: “Hartuko bagenitu etxea, lagunartea, administrazioa... garbi dago eskola gotorlekua dela”. Dena dela, gotorleku horrek umeentzat bai, baina gaztetxoen-tzat nola gero eta indar gutxiago duen azaldu zuen: umeen bi gune nagusiak dira eskola eta etxea, 13-14 urtekoentzat berriz, bizitza eremuak hedatuz doaz, eta eskolaren eragina, txikituz. Eduardo Apodaka soziologoak eskolak euskararekiko betetzen duen egitekoak “atmosfera kontrolatua” terminoa erabili zuen; umei erreferentzia eginez, ez gazteei. F. Xavier Vila soziolinguistak kontrapisuaz hitz egin zigun: “Eskola zerbait izatekotan euskararen normalizazioan daukagun kontrapisurik garrantzitsuena eta eraginkorrena da”.


Pablo Suberbiola Soziolinguistika Klusterrako kidea da eta Arrue proiektuko egileetako bat. Eskolak, urteen poderioz, egin ezin dituen gizarte osoaren lanak egingo zituela uste izan omen dugu. Esate baterako, etxetik eta kaletik erdaldun datorren haurra eskolan euskaraz aritzea; ikasgelan bezainbeste jolastokian euskaraz aritzea; eta haurtzarotik gaz-

LMH4ko eta DBH2ko ikasleen hizkuntza erabilera


Ikaskideekin gelan




Ikaskideekin jolaslekuan



Irakasleekin gelan



Irakasleekin gelatik kanpo



- Beti euskaraz
- Bietan berdin
- Beti gaztelaniaz

- Euskaraz gaztelaniaz baino gehiago
- Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago
- Beste hizkuntza batean

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Soziolinguistika Klusterra, ISEI-IVEI

tarora igarota, gizartearen jokabideari bizkarrara emanda gaztelaniaz baino euskaraz gehiago egitea. Zaila. Suberbiolak botila erdi bete-ta ikusi nahi du eta *Berriari* esandako hitzok adierazgarriak dira: “Ez da paranormala jolastokikoa. Zuzenagoa da datuei honela begiratzea: ez zenbat jaisten den gelatik jolastokira, baizik zein den batez bestekoa gizar-

tean eta zer plus sortzen duen eskolaren eraginak. Euskara lehen hizkuntza ez duen ikasleak nola egunero euskaraz egiten duen ikaskideekin eta irakasleekin”.

Ez dira estralurtarrak ikasleak; etxean, kalean eta hedabideetan bizi dutena daramate eskolara, eta ikastetxea etengabe ari da kontrapisu lana egiten. ■

Babeslea: Bilboko Udala

harrapazank 2013
harrapazank.com

gazte bilbotarren komunitatea

harrapazank eszena sortuzank tailerrak

Bilbao topagunea



ARTANOK UTZIA

Helena Artano



ANDOAINGO
LA SALLE
BERROZPEKO
HIZKUNTZA
PLANGINTZA
ARDURADUNA

Eskolan hobetu bai, baina bakarrik jai

IKERKETAREN ONDORIOAK ikusita, espero ez nezakeen daturik ez dut ikusi. Poztu ere egin naiz neurri batean, eskolak ahal duena egiten duela baieztatu duelako ikerketak eta eskolak bakarrik ezin duelako gizarteak emandako helburua bere gain hartu.

Ikerketak datu asko bildu ditu. Espero daitekeen bezala, eskola kokatzen deneko ingurunea oso euskalduna bada, ikasleen euskararen erabilera handiagoa da ingurua hain euskalduna ez denean baino. Ikasleak D ereduaren badabilta ere, euskara gehiago erabiltzen dute. Baina ereduak egiten den analisia ez zait oso zehatza iruditzen, eremu oso euskaldun eta lehen hizkuntza euskara duten ikasleek osatzen duten D ereduak ez baitu zerikusirik eremu ez hain euskaldun eta ziurrenera, lehen hizkuntza euskara ez duten ikasleen kopuru handiagoa duten D ereduarekin.

Horri erantsi behar diogu gero eta atzerritar gehiago iristen ari dela gure ikasgeletara. Eta iristen diren adin eta jatorriaren arabera, eta gelan osatzen duten kopuruaren arabera, berez nahikoa zailtasun eta ahaleginez lortutako gelakideen euskararen erabilera xumea askotan kolokan jartzen zaigu, harremanak baldintzatzen dituztelako. Ikerketan ikasleen lehen hizkuntzaren araberrako erabilera datuak agertzen dira baina zenbat urterekin heldu diren, zein ingurunetara, zein eredutan murgildu... ez. Mereziko luke ikerketa ildo horri eustea.

Irakasleek zenbat eta gehiago egin euskaraz beraien artean, orduan eta gehiago erabiltzen dute ikasleek

Ikerketak baieztatzen duen beste datu bat, gurasoek duten garrantzia da: eskolak bakarrik ezin du eta gurasoek oso garbi izan behar dute hori. Ikastetxeetan sumatzen genuen hori eta hasiak gara guraso bileretan mezu horiek lantzen, hitzaldiak antolatzen, beraien jarreraren garrantziaz jabetu eta laguntza emateko aholku-liburuxkak banatzen, jolas-kantu- ipuin-ikastaroak antolatzen, euskara ikasteko aukerak

eskaintzen... Baina, alde batetik, izugarri zail egiten zaigu gurasoak erakartzea eta parte hartzera hurbiltzea; eta, bestetik, haurrak haur diren artean, euskarak gurasoentzat pisu pixka bat badu ere, gaztetxo eta gazte egiten diren heinean, pisu hori jaitsi eta desagertu ere egiten da, eta haurrek/gazteek egiten duten ahalegin horretan mezu positibo eta animoak behar dituzte, euskara ikastea merezi duela sinisten dutela ingurukoek sumatu behar dute. Eta hor gurasoen babesa falta dela esango nuke, arreta eta beharra beste gai batzuetan jartzen delako, ziurrenera.

Eskolak asko egin du baina horrek ez du esan nahi eskolan hobetzerik ez dugunik. Ikerketa honetan, esaterako, EAEko ikasleek 2011ko Ebaluazio Diagnostikoan euskara proban lortutako emaitza onak erakutsi dizkigute. Erakutsitako emaitzak, ordea, ikasleen ulermenari zegozkionak baino ez ziren, entzumena eta irakurmenarenak, alegia. Ekoizpeneko datuen hutsunea nabaritu nuen. Eta ulergarria da: ahozko eta idatzizko adierazmena biltzea, zuzentzea... oso zaila da eta, batez ere, irizpideak adostu eta denon artean doitzea! Zein dira derrigorrez eta ezinbestean ikasleak hizkuntzaren erabilerari lortu beharreko gutxieneko mailak, ahoz eta idatziz? Eta nola bereizten ditugu hurrengo mailak? Eta lan hori hizkuntza irakasleari soilik egokitzen al zaio? Badago lanerako eta hobekuntzarako ibilbiderik.

Eskoletan landu eta hobetzeko beste esparru bat, ikerketan agertu den ikastetxe giroaren ingurukoa da, hots, eskolako esparruan irakasleek beraien artean egiten duten erabilerari buruzkoa: irakasleek zenbat eta gehiago egin euskaraz beraien artean, orduan eta gehiago erabiltzen dute ikasleek. Hausnarketa egin beharko dugu ikastetxeetan eta bakoitzak bere ibilbidea adostu.

Eta ikerketak datu interesgarri gehiago baditu ere, mezu baikorra eman nahi dut amaitzeko: eskolak badu zer hobetu, ziur, baina ikerketak erakutsi du eskolak asko egin duela orain arte eta behar genuen hori entzutea. Eta ilusioz indarberrituta helduko diogu hemendik aurrera egin beharreko lanari. ■



BIAINEK UTZIA

Iñaki Biain



HIZKUNTZA
NORMALIZAZIO
AHOLKULARIA,
IRUNGO
BERRITZEGUNEAN

Egoera deskribatzetik ekinbidera

ARRUE IKERKETAK argi deskribatu digu nolakoa den haur eta gazteen hizkuntza-erabilera, bai eta argi erakutsi ere zer lotura duen erabilera horrek hainbat aldagairekin. Datu bat nabarmentzen da: 9 eta 13 urteen artean, asko jaisten da ikaskideen arteko euskararen erabilera. Bestalde, kideen artean euskara erabiltzeak lotura estua du lau aldagairekin: eskolaz kanpoko jardura antolatuetan erabiltzen den hizkuntzarekin, eskolako hizkuntza-ereduarekin, etxeko erabilerarekin eta irakasleen arteko hizkuntza-erabilerarekin.

Oro har, hau antzematen da: ikasleek –heltzen doazen neurrian– gaztelaniara jotzen dute haien arteko harremanetan. Oro har, bai, baina ez beti: “Herriko euskaldunen proportzioa” altua denean, joera ez da igartzen; bai, aldiz, ingurune ez horren euskaldunetan, lehen hizkuntza eta etxeko hizkuntza euskara izanagatik.

Gaztetxoek zergatik egiten dute bat gizarte-arau horrekin?; zergatik ez diote aurre egiten beste hainbat ararekin egiten duten moduan?

Datu horietatik zera ondoriozta daiteke: gaztetxoek bat egiten dute ingurune hurbilean nagusi diren hizkuntza-jokabideekin; hots, haien gertuko harreman-sareetan nagusi diren erabilera-arauetara egokitzen dira.

Horra datuak eta datuek deskribatzen duten egoera. Orain beste urrats bat eman beharra daukagu eta aztertu zein prozesu gertatzen ari diren pertsona eta talde horien baitan. Gaztetxoek zergatik egiten dute bat gizarte-arau horrekin?; zergatik ez diote aurre egiten beste hainbat ararekin egiten duten moduan? Parekideen talde-jokaera (-presioa) izan daiteke eragilea, bai. Baina, zer dela-eta egiten du taldeak hautu hori? Eragin dezakegu bestelako hautu bat egin dezaten?

Bestalde, talde-jokaerak zergatik egiten du, gehienetan, gaztelaniaren alde? Zenbaitetan taldekideen hizkuntza-erraztasuna

edota etxeko hizkuntza-ohitura izan daiteke gakoa. Baina beste zenbaitetan, erraztasun-maila (eta familia-hizkuntza) ezberdineko gazteak elkartzen direnean ere, gaztelaniaren aldeko hautua nagusitzen da askotan. Zergatik? Hizkuntzen gizarte-balioari buruz eraiki dituzten pertzepzioek, usteek eta sinesmenek eragina izan dezakete hautu horretan, bai. Baina, nola eraiki dituzte pertzepzio eta uste horiek? Gizarte-egoerak askotarikoak dira; ez dira kolore bakarrekoak. Eragin dezakegu bestelako pertzepzioak eta usteak eraiki ditzaten?

Ebidentzietatik eratorritako galderek erronka planteatzen digute: bilatu, jardun, probatu, hausnartu... (ikerketa-ekintza moduko ikerketa aplikatua egin). Eta, besteak beste, ekinbide hauek iradokitzen dizkigute:

Auzoan. Ohiko sozializazio-guneen eragina ikusita, aisialdi antolatuaren eskaintza sendoa egin behar dugu: euskaraz, denontzat. Gazte guztiek izango dute onuragarri, eta bereziki beren ohiko testuinguruan euskaraz jarduteko aukera gutxi dutenek; gaitasunean sakontzeko eta elkarbizitzan euskaraz aritzen ohi zeko trebaleku izango dute aisialdi antolatua.

Eskolan. Ikasleek euskaraz gaitasun nahikoa garatzen dutela ziurtatzeaz gain, batetik, erabileraren aldeko hautu kontzientea elikatu behar dugu –hizkuntzari buruzko pertzepzioak, autopertzepzioa, konfiantza eta segurtasuna optimizatuz eta, bestalde, nahimena elikatzeko eta erabaki pertsonalak zein taldekoak ahalbidezteko hausnarketa sustatuz– eta, bestetik, ohikoa ez den hizkuntza-jokabide proaktiboa izateko behar diren trebetasunak landu behar ditugu. Eta irakasleok erabileraren eragile eta eredu gisa jokatu behar dugu –jokaera proaktiboaren erreferentzia eskaini: erakutsi konbergentzia-arauari izkin egin dakiokela eta euskarari eutsi–.

Etxean. Euskararen erabileraren aldeko espektatibak sustatu behar ditugu, eta euskara dakiten gurasoen kasuan, eguneroko elkarbizitzan erabileraren eredu izan behar dugu.

Lantegi interesgarria dugu aurrean. ■



ZALDI ERO

Itziar Idiazabal

EHUKO IRAKASLEA ◆

Irakurketa didaktikoa

GAUZA ASKO aztertzen da ikerketa honetan: euskararen erabilera eskolan, gelan eta jolas lekuan, ikaskideen artean eta irakasleekin, 10 eta 14 urterekin, eta EAEko diru publikoarekin finantzaturako eskola guztietako ikasle guztien datuak biltzen dira. Ikerketa ambizioa eta aberatsa, guztiz interesgarria.

Ezagutzarik gabe erabilerarik ez dagoenez, ezagutza izan da orain arte aztertu izan den gaitasuna. Erabilera lehenengo aldiz aztertzen da hemen. Egia da datuak zeharkakoak direla, alegia, ikasleek esaten dutena da dakiguna, ez benetan egiten dutena. Hala ere, aurrerapauso nabarmena da eskoletako euskararen egoera hobeto ezagutzeko eta behar izanez gero neurri eraginkorragoak hartu ahal izateko.

Ikerketa honek ematen duen informazio aberats horretan guk hizkuntzaren didaktikatik egingo dugu begiratua. Askorentzat, beharbada, hizkuntzaren didaktikan dena egina egongo da; eskolak hainbeste urte darama hizkuntza irakasten... euskaraz ere, 30 bat urte bai; zer dago bada ez dakigunik?

Komeni da hizkuntzaren didaktikaren printzipio nagusia kontuan hartzea. Zer da hizkuntza irakastea? Erantzuna erraza da: hizkuntza erabiltzen irakastea. Eta hori al da gure eskoletan, euskararekin nahiz beste hizkuntzekin egiten dena? Hizkuntza erabiltzen irakasten da, ala hizkuntzari buruzko ezagutzak, gramatikari dagozkienak, literaturari buruzkoak, historiarenak, irakasten dira?

Mikel Zalbidek, Arrue ikerketaren aurkezpen hitzaldian, 2013ko urtarrilaren 31ko ekitaldian, erabilitako metafora berbera erabil dezakegu: bizikletan ibiltzeko, bizikletaren ezaugarri guztiak dira garrantzitsuak eta komeni da haiek ezagutzea: manillarra, freno, pedalak, kanbioa, sillina eta nahi duzun guztia. Alabaina, hori guztia jakin arren ibiltzen ez bada kizu erori egingo zara. Bizikletan ibiltzeko bizikletari buruzko ezagutzak gutxi balio duen bezala, hizkuntza erabiltzeko ere hizkuntzari buruzko ezagutzak gutxi balio dute. Erabiltzen erakutsi behar da.

Gogoeta hau hizkuntzaren didaktikan oinarritzkoa eta aspaldikoa izan arren ez dirudi erabat barneratua dagoenik. Hezkuntza arduradunen orientabide didaktikoetan, eta esku artean dugun ikerketan bertan ere, erabileraren alde egiteko kezka nabarmen ageri da.

Eskola liburuetan eta eguneroko irakats praktikan aldiz, oso sartua dago hizkuntzaren irakaskuntzan nahikoa dela halako edo bestelako arau edo ezaugarri ageri diren esaldi isolatuen inguruko ariketak egitea, hiztegi zerrendak, ortografia zuzenketak... Baina benetako hizkuntza erabilerak, esanguratsuak, zentzua garbi ulertzen zaien testu-genero osoak esan nahi da, idatzi edo mintzatuak, gutxi lantzen dira gure eskoletan.

Arrue ikerketaren markoa den *Ebaluazio-Diagnostikoa 2011* lanean “Euskarazko hizkuntza-komunikazio konpetentziak” neurtzen dira. Neurketa honetan ahozko eta idatzizko ulermena eta idatzizko ekoizpena ebaluatzen da, ahozko ekoizpena ez. Erabiltzeko gaitasunaz ari bagara eta mintzatzeko gaitasunaren berririk ez badugu, gutxi dakigu benetako erabilera gaitasunaz. Bizikletaren adibidearekin jarraituz, bizikleta estatikoan ibiltzeko bai, baina zure kabuz eta bide-gorrian edo mendiko pistan ibiltzeko gauza zaren ez badakigu, eskolatik kanpo eta edozein egoeratan euskaraz egiteko gaitasunik lortu duzun edo ez, ez dugu jakingo.

Ahozko ekoizpena ez ebaluatzea ez da kasualitatea, jakina. Ahozko testuen ezaugarriak gutxi aztertu dituzte gure hizkuntzalariek; ondorioz mintzaeraren irakaskuntza nola egin behar den jakiteko erreferentzia falta nabarmena dago. Ebaluatze orduan alor hau hutsik geratzea, beraz, oso ulergarria da, baina ez horregatik garrantzirik gabea.

Arrue ikerketan ondo erakusten da euskaraz ondo jakin arren ez dutela ikasleek beti bere erabilera hobesten. Baina korrelazio garbia ageri da baita ere, ezagutzarik handiena erabilerarik handienarekin lotzen duena. Badakigu euskararen komunikazio-kompetentzia errazago lortzen dela familian eta inguruan euskara erabiltzen den guneetan. Eskolatik kanpo ere hizkuntzak ikasi egiten baitira. Seguruenik giro erdaldunetako eskoletan euskara irakasteko lan handiagoa egin arren emaitza eskasagoak lortzen dira. Nolanahi ere, eskolak berea bete behar du, eta eginkizun hori ongi betetzeko bada oraindik zer ikertua. Eta bide batez, ebaluazio programek ere eragin handia dute didaktikan; neurtzen ez dena ez baita irakasten. ■

Zer da hizkuntza irakastea? Erantzuna erraza da: hizkuntza erabiltzen irakastea. Eta hori al da gure eskoletan egiten dena?



kantu liburuxka berria

EUSKAL HERRIA KANTUZ

101 abesti kantatuenak

herrialde guztietako abestiak

herrikoiak, tradizionalak,
egile ezagunenak, gaur egungoak

belaunaldi guztientzat

**Euskal Kantuzaleen
Elkartearen eta
GARAren eskutik
Martxoaren
16 eta 17an**
ohiko saltokietan

**9,95 euro
+
GARA**



Euskal Herria
kantuz

GARA

«Konbentzitura nago gatazkaren ondorioen arloan irtenbidea ikusiko dugula»

Aldatzen dira garaiak, aroak, siglak, estrategiak... Baina beti hor.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

1959an Oiartzunen hasten da zure errelatoa.

Eskola nazionaletan jaso genuen hezkuntza akademikoaren lehen zatia. Gure irakaslea frankista izugarria zen, euskaraz mintzatzeagatik zigortu eta kolpatu ez arren. Bestalde, Elizak sekulako indarra zuen. Ni hileko lehen ostegunean konfesatzera eta lehen ostiralean jauna hartzera joaten zen belaunaldikoa naiz. Hori hala, egia da etxean apenas hitz egiten genuela politikaz. Amaren osaba hiru urtez egona zen espetxean, eta aita zena 18 urte beteta beharturik eraman zuten Nazionalak Ebroko frontera. Iragan latz horrek eta giro sozialean arnasten zen beldurrak eragina zuen etxean, eta semeak babesteko gurasoek nahiago izaten zuten politika ekidin. Ni base-ri txiki batekoa izan ordea, eta esnea banatzen genion inguruko etxe bateko semearen bila joan eta aurkitu ez zuten ez arreba biak eraman eta torturatu zituzten. Horrek zein 1970 hasieran Oiartzunen izandako atxiloteta ugariak barrenak mugitu zizkidaten eta kontzientzia baten premisak ernarazi. 14 urterekin Oreretara pasa ginen eskolara, beste errealitate batekin egin genuen topo, beste harreman batzuekin, eta hor egituratu zen militantziara eramango ninduen gorputz politiko ideologikoa.

Beste garai batzuk zirela esango luke nostalgikoak.

Guretzat oso garai biziak ziren, oso nahasiak. Frankismoa azkenetan zegoela sentitzen zen, aldaketa sakonak etor zitezkeela. Jendearen inplikazio handia zegoen, gizartearen esparru guztiak ziprztintzen zituen kontzientzia sozial zabala. Ikusmolde ideologiko oso desberdinak egon arren denek egiten zuten bat

aldaketaren behararekin, errealitate gogor hura iraultzeko antsiarekin. Gaur egun baino askoz errazagoa zen eztabaida politiko eta ideologikoak bizitzea. Gaurko gizarteak ez du zerikusirik ordukoarekin. Gaur ere ordea, herri honek zapalkuntza politiko berbera bizi du, ukazio berbera, hain ageriko parametroetan ez izan arren. Horrek kontzientzia soziala desberdin astintzen du erreakzioaren adierazpen diferentea eraginez. Dena den, gaur egungo baldintza sozio-politikoek ere ematen dute kontzientzia politiko esnatzeko aukera.


Kontzientzia ernatu orduko karrera politikoarekin egiten dute amets zure mailako politikari anitzek. Zuk nola bizi duzu zure alderdiko fokupeko lider erreferentea izatea?

Nik ez dut sekula halakorik amestu! Nire ibilbidea herri honekiko konpromiso militante bizi-bizirik dator eta gaur egun ere halaxe bizi dut. Ezker abertzalekoa ez da alderdi politiko batek erakartzen duen militantzia, herri baten zapalkuntza gainditzeko konpromisoaren baitako militantzia baizik. 17 urterekin, komite antinuklearretan antolatu nintzen lehenengoz, Amnistiaren Aldeko Batzordean jarraitu nuen

NORTASUN AGIRIA

Rufi Etxeberria 1959ko apirilaren 22an jaio zen Oiartzunen. HBtik Sorturako ibilbidea egin du ezker abertzaleko egituretan eta ilegalizazioen inguruko atxilotetak medio 1997tik hona espetxean sei urte pasa ditu. Loiolako mahaian parte hartu zuten kideetako bat izan zen, eta azken urteotan ezker abertzalean eman den estrategia aldaketaren ezinbesteko erreferentea da.





gero, pixkanaka herri mailatik eremu zabala-goetara egin nuen salto, eta militantziak berak eraman nau nazio mailako arduetara. Egun dudan jendaurreko papera zirkunstantziek behartutakoa da. Ez dut esango gorrotatzen dudanik, baina inoiz bilatu eta desio izan ez dudan zerbait da. Bizitzan bakoitzak bere lekua non dagoen jakin behar du, bere bertute eta gabeziak zeintzuk diren antzeman, ekarpen handiena non egiten duen hausnartu, eta nik badakit zertan naizen iaioa eta zertan dauzkadan mugak. Ilegalizazioak eta zenbait kideren atxiloketek gogoko ez dudan fokupeko funtzio batera derrigortu naute, baina tira, Sorturen antolakuntza berriak askoz gustukoa ditudan esparruetara itzultzeko aukera emango dit. Hobe horrela.

Fokupeko ibilbide horretan, bereziki sonatua izan zen 2011ko otsailean Bilboko Euskaldunak Sortuk indarkeria oro, ETArena barne, errefusatzeko zuela adierazi zenutenekoa. Zer zebilen zure buruan Euskaldunara bidean?

Ezer berezirik ez. Niretzat Sorturen fasea baino lehenago, Zutik Euskal Herriarekin itxi genuen aroa izan zen intentsitate eta emozio handikoa. Hura zen fase erabakigarri eta historikoa. Aurretik egindako gogoeta asko bildu ziren, frustrazio batzuk ere bai, eta ederki genekien eztabaida horretan landu, jorratu eta erabaki zenak zer suposatzen zuen. Sorturen Euskaldunako aurkezpena horren ondorio bat baizik ez zen: ezker-abertzalearen estrategia berria gorpuztu ahal izateko egitura politiko batez jabetzeko ezinbesteko geltokia. Horregatik niretzat eztabaida sasoia izan zen intentsua, urte luzetako bizipen pertsonal, politiko eta organizatiboak

etapa berri bati begira kondentsatu zituelako. Hori hala, kontziente ginen aurkezpen horretan Estatuak behartzen gintuen parametroetan kokatzen genuela estatutuen atala. Egoera demokratiko batean ezker abertzaleak ez zituen sekula estatutu horiek aurkeztuko. Egia da ezker abertzaleko sektore batzuegan estatutu horiek inpaktu handia eragin zutela, baina guk bagenekien estatutuek ez zutela ibilbide politikoa aldatzen, aldaketaren erabakia Zutik Euskal Herriarekin hartu zela. Erabaki horren baitako deribatu bat baizik ez zen Sorturen estatutuak espainiar legediak exijitzen zigunera errenditzea, eta ordurako ibilbidea oso mamituta geneukan.

Zer da samurragoa, etxeok ala arerioak kontentitzea?

Biek daukate bere zailtasuna eta biak dira ezinbestekoak. Etxean gauzak sendo ez dardenean ibilbide labur bezain malkartsua duzu aurretik. Hala ere, 2009an hasitako eztabaidarako oinarritzko bermea geneukan: gogoetaren zantzuak gudan zeuden. Aljerreko prozesuaren ondotik, Bidarteko erorketen ostean, hausnarketa hasi zen ezker abertzalearen baitan; Alternatiba Demokratikoak negoziaketa prozesuen ulermenean aldaketa ekarri zuen. Hor kokatzen da 2004ko Anoetako ekitaldian planteatu zen ereduaren oinarria. Gertatzen dena da, aldaketak eta urratsak egin arren, gehiago kostatu zaigula horien dimentsioa ildo eta estrategia politikoetan txertatzea. Oso motel eta kontraesanekin egin dugu Alternatiba Demokratikoak eskatzen zuen garapena. Zorionez, hori guztia metatuta geneukan 2009an eztabaidatzen hasi ginenerako. Ez zen hutsetik eztabaidatzen hastea,



aspalditik zetozen gogoeta multiformeei forma emateko ariketa baizik. Horregatik eman zaio transatlantikoari buelta hainbesteko ziurtasun eta batasunarekin. Eztabaida ez zen zuri ala beltza izan, ez geunden ezker abertzalean lehenago izan diren hausturen testuinguruan, estrategia egoera berrira aldatzeko beharraren baitan baizik.

Eta nola konbentzitzen dira kontrario politikoak? Loiolako mahaian, esaterako.

Aljerrekoa ezagutu eta Lizarrakoa pasata, prestakuntza handiko prozesua izan zen Loiolakoa. Bi fase egon zirela esango nuke. Bata, 2006an ETAk su-etena eman artekoa, baldintza zailetan garatzen den prestakuntza eta dinamikari esker modu bikainean burutu zena. Bestea, su-etenen ondokoa, non aurretik ireki ziren espektatiba guztiak urratzen joan ziren. Nire ustez Alderdi Sozialistak ez zuen prozesua sendotasunez prestatu, ez alderdiaren baitan, ez Estatuko boteregune-

tan, ez oposizioko indarrekiko. Oso plano eta maila aldebakarrekoan egin zuten dena, eta kontrako sektoreek zaunka egin zutenean, ez zuten erantzuteko adore nahikorik izan. Bestalde, ezker abertzaleak irakurketa okerra egin zuen. Herri honetan inoiz eman den negoziazio faserik emankorrenera eta gaur egun ere balioa duen akordio zirriborrora iritsi ginen, baina ez genuen kudeatzen asmatu, ez genuen zuzen jokatu. Zapalkuntzaren aurrean sortzen den eta ukazio hori gainditu nahi duen erresistentzia mugimendu batek, ukazio hori mantentzen duen Estatu negoziazio mahai batera esertzen badu, altxatzerako ez du bere estrategian soilik pentsatu behar, herri-estrategian baizik. Estatu bat negoziatzera eramaten baduzu, ezin duzu negoziazio hori soilik zure baitako azterketa baten ondorioz itxi. Uste dut ezker abertzaleak hiru negoziazio prozesuetan akats hori egin duela. Zer da negoziazioa, prozesu bat edo fase bat? Ezker abertzaleak mahaian hasi eta mahaian buka-

CuadraBus
www.cuadribus.com
 ☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215
info@cuadribus.com

Euskal Museoa
 Miguel de Unamuno plaza 4 • 48005 BILBO
 Tel. 94 415 5423
museoa@euskal-museoa.org • www.euskal-museoa.org

RUFI ETXEBERRIA

tzen zen fase bezala ulertu zuen, ez Estatu bat eta alderdi politikoak mahai baten inguruan jartzera eramane zituen prozesu legez. Alternatiba Demokratikoaren aurreko parametroetan garatu genuen negoziaketa, Aljerreko parametroetan ia-ia, eta ziur nago prozesu gisa interpretatu izan bagenu bestelako erabakiak hartuko genituela. Baina eztabaida hori oraindik eman gabe geneukan, erabaki gabe geneukan negoziazio prozesuan borroka armatuak izan beharreko funtzioa. Akatsak akats, Loiolakoa gatazkaren konponbiderako adierazpen pragmatikoa zelakoan nago. Gerora ezker abertzaleak akordioak nahikotasun mailarik ez zuela esan bazuen ere, nik uste dut bazuela, eta hiru alderdiek adosturikoa Gobernu espainiarrik onartu ezean Loiolakoa aldarrikapentzat zuen eskenatoki batean sartu eta panorama errotik aldatuko zela. Baina suposizio politikoak baizik ez dira horiek.

Suposizioekin segituz eta zintzoki pentsatuta, gaur egun zergatik mugitu beharko lukete Espainiako eta Frantziako estatuek?

Estatu espainiarra kultura demokratikorik ez duen Estatua da, errealitate nazionalekiko beti planteamendu berbera mantendu duena. Hori esanda zergatik erantzun beharko liokeen positiboki gatazkaren konponbideari? Batetik,

gatazkei soluzio demokratikoa ematea delako gatazkak konpontzeko bide unibertsala. Bestetik, herri honen gehiengoak gatazka konpontzeko eskatzen duelako eta ezin zaiolako entzungor egin. Estatuak ez du irtenbiderik nahi ordea, ez Euskal Herriarentzat, ezta Kataluniarentzat ere. Ez dauka agenda demokratikorik eta prestutasunik errealitate horiei erantzuteko. Horren aurrean irtenbide bakarra dago: aldarrikapenarekin jarraitu, indarrak metatu eta presioa areagotzea. Gobernuaren erantzun positiboa herri honetako presio sozial politiko eta instituzionalak eta nazioarteko laguntzak baizik ez dute ekarriko. Horren baitan dago estatuek gatazken ondorioei heletzea: preso eta iheslarien errealitateari, armagabetzeari... Uste dut orain arteko mobilizazio mailari eta nazioarteko bitartekaritzari eutsita, lortuko dugula Gobernuaren jarrera itxia haustea. Konbentziturik nago gatazkaren ondorioen arloan irtenbidea ikusiko dugula, Espainia Estatu ahul eta gobernu ahulagokoa izateak gauzak zaildu arren.

Plano politikoari lotutako aldarrikapenei buruz galdetzen badidazu, ezkorrago nago. Espainian aldaketa sakona ematen ez bada, Estatuaren hezurdura osoa kultura demokratikoz blaitzen ez bada, hurrengo denboretan jarrera itxi berberarekin jarraituko dute.

Kalean da martxoko

aizun!



- Zilbeti: harrobia ala pagadia?
- Korrika 18, hasi beroketa ariketak egiten!
- Reyes Ilintxeta arin-arin
- Esamesen kalteak
- Txakurra, kirolerako laguna

Urte osoko harpidetza (Hego Euskal Herria eta Espainia) **29 €**
aizunet.org

OFF THE RECORD



Lan isila

Elkartean geunden telebistari so. Zuzen joan behar zuena okertu zela-koan, galderarik onartzen ez zuen interbentzioa egin zuen Arnaldo Otegi Ruffi bizkartzain mutua zuela. Arnaldoren hitzak komentatzen ari ginela, "Aupa Ruffi! Hori duk eta!" atera zitzaion bertako bati. Harrituta, ahoa zabaldu zuena Arnaldo zela argitzekotan ginenean, eman zigun azalpena: "Ez duzue ezer ulertzen. Gaur Ruffi Arnaldok baino gehiago esan dik. Horixe duk lan isila!". Ez da definizio txarra.

Autodeterminaziorako bidean guk nahiago dugu Eskoziako eredia, baina sinetsita nago bi estatuek Kosovoko eredia eramango gaituztela. Horregatik, erabakitze eskubidea onartzen duen eskenatokiak halako aldaketa ekartzea baino egingarriagozat daukat indarrak eta bitartekoak metatuta Estatu independentzia bera negoziatuko den egoera batera eramatea. Kataluniarekin epe motzean gertatuko denak pistak emango dizkigu, baina ez dut uste Espainiak Britainia Handiak Eskoziarekin hartu duen jarrera hartuko duenik. Nahiago nuke Kataluniako erakundeetatik datorren aldarrikapenetik hasita Madrilen erabakitze eskubidearen inguruko adostasunera heltzea, baina ezkor nago.

Berehalako emaitzetara ohitutako jendartean ez ote da lan gaitza mobilizazioari eustea?

Aieteko konferentzia pasa, ETak armak utzi zituela iragarri eta PP boterera heldu zenean hiru aukera irudikatzen genituen. Bata, eta inondik ere espero ez genuena, PPk bide erakitzaile bati ekitea. Bigarrena, Gobernu berriak

jarrera inbolutiboa hartzea. Kanpainan ilegaltzazioaren eta prozesuaren aurkako mezuak jaurtitzeko ibili ziren, eta analitikoki ezin zen baztertu ordura arteko bidea birrintzera joatea. Azkenik, posizio indartsuagoa irabazte aldera blokeo egoera probokatu zezaketela aurreikusten genuen. Bagenekien ez zela bi eguneko kontua izango, blokeoa behartu eta prozesu-ezara joko zuela Gobernuak. Horretan ari dira. Batetik, sinetsita daude gatazkaren ondorioei irtenbide politikoa emateak mugimendu independentista indartzen duela, eta bestetik auzia luzatuz irabazle/galtzaile bereizketa errazago irudikatu dezaketelakoan daude. Hori hala, beste alderdion dagokigu estrategia hori pitzatzea. Ezin diogu PPri bertan goxo egoten utzi. Horri buruz hitz egin dugu sozialistekin, EAJrekin, zein hainbat esparrutako eragileekin, eta denok bat gatoz aldaketak behar direla esaterakoan. Inor ez dago eroso, inork ez du PPren estrategia onzat ematen. Abiapuntu bat daukagu, ez da gutxi. Besterik da PPren harresia pitzatzeko eraman beharreko estrategia nahiz ildo komunikatiboa adostea eta bakoitza zenbaterainoko konpromisoak hartzeko prest dagoen neurtzea, baina PP mugitzera behartu nahi badugu ez dago besterik: gatazkaren ondorioen agenda tratatua izan dadin adostasun minimo batzuetara heldu beharra daukagu. ■





TALLERES MITXELENA

S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000

Fresadora: 10.000 x 3.500

Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.
 Eziaigo Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
 T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

ALBERTO RUIZ DE ALEGRIA

«Gurasoek batzuetan dramatizatu egiten dute nerabearen portaera»

Zailtasunak dituzten nerabeak eta euren familiak laguntzeko Donostian dagoen doako programa da Norbera eta bertan lan egiten duten zortzi terapeutetako bat da Alberto Ruiz de Alegria. Iaz Gipuzkoako 151 gazteri eskaini zieten laguntza eta aurten, hamabost urte bete dituztela-eta, jardunaldiak antolatu dituzte apirilera.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Arrisku egoeran edo babesik gabe dauden nerabeak artatzen dituzue. Zer da zehazki arrisku egoeran egotea?

Pertsonalki edo familian egoera jakinak bizi dituzten eta egoera horiek kontrolatu ezean helduarora igarotzerakoan arazoak izan ditzaketen gazteak laguntzen ditugu, 14-18 urte artekoak. Hona datoz familia-gatazkak daudenean –guraso eta seme-alaben arteko harremana krisi uneren bat igarotzen ari bada–, egokitzeko arazoak dituen eskolan edo gizartean, drogak kontsumitzen hasi bada, edota justiziarekin arazoak izan baditu –delitu edo lapurreta txikiren bat, jarrera arazoren bat...–.

Egoerak bi ikuspegitatik planteatzen eta interpretatzen ditugu: batetik, ulertuz ezaugarri propioak dituen bizitzako etapa dela nerabearoa, identitatea bilatzeko prozesua, eta horregatik helduengan patologiatik gertu irudituko litzaizkigukeen jarrera batzuk naturalak direla etapa horretan. Bestetik, familia kontuan hartuz, neska-mutilen zailtasun eta jarrerak ez direlako sortzen ezezetik, testuinguru baten baitan baizik, eta testuinguru horretan familia giroak izugarriko garrantzia dauka. Familia, azken finean, soluzioaren parte da –kausaz baino nahiago dugu soluzioaz hitz egin– eta seme-alabaren portaeren aurrean gurasoek duten erantzuna inportantea da.

Zein irizpideren arabera hartzen dituzue gazteak?
Taula estandar bat dugu hainbat ezaugarri begiratzeko. Familiarekin egiten ditugun saio-

etan, diagnostikatzen dugu gurasoek nola gestionatzen dituzten seme-alabari jarritako arauak eta ondorioak, arauak betetzen ez dituen; harreman afektiboak nolakoak diren senideekin –ea adinari dagokion moduan tratatzen duten seme-alaba, adibidez–; gurasoen arteko harremana; familia-ohiturak –denborarik eskaintzen al dioten gazteari...–; eta nerabearen behar fisiko, kognitibo, emozional eta sozialei ondo erantzuten zaien. Behin hori aztertuta, familiarekin landu beharreko helburuak ezartzen ditugu. Bestalde, nerabearekin berarekin egiten ditu-

gu saioak, eta horietan aztertzen dugu pertsonalki nola dagoen, arrisku jarrerarik al duen, psikopatologiarik al duen, zein abildade eta ohitura dituen, aisialdian zer egiten duen, eta nola moldatzen den gizartean, familian eta eskolan.

“Jendeari ardurak eskatu behar zaizkio oker jokatu duenean, baina ez gara ibili behar errudunak bilatzen”

Lehenengo diagnostiko horretan gertatu al zaitzue ikustea nerabeak ez duela laguntza berezirik behar, adinaren kontua baino ez dela?

Bai, batzuetan familiari esan behar diogu egoera dramatizatzen ari dela, ondo gestionatuz gero nahikoa baliabide badituztela egoerari aurre egiteko. Gurasoak datozkizu esanez “zer egin dugu gaizki? Nire semeak porro bat erre du!”, baina 14-18 urte arteko gazte batek porro bat erretzeko duen probabilitatea oso altua da, ez da zerbait dramatiko. Eta alde-rantzizkoa, guraso batek esan ahal dizu, “egunerok erretzen du, baina denek egiten dutenez...”. Batzuetan, diagnostikoaren ostean beste zentro batzuetara ere bideratzen ditu-



gu, arazoaren ezaugarriek eskatzen dituzten baliabideen arabera.

Egoerari aurre egiteko baliabideak dituzte gurasoek. Garrantzitsua da mugak eta arauak jartzea?

Garrantzitsuak baino, beharrezkoak dira, arauak ondo administratzen jakin behar da, baina harreman afektibo on batean oinarrituta egon behar dute. Arauek bere horretan, lotura emozionalik gabe, gabezia handiak dakartzate; araua afekturik gabe herren da eta afektua araurik gabe berdin. 15-16 urteko gazteak gurasoen esanak beteko ditu autoritate moralak jarri badu haiengan eta hori ez da egun batetik bestera lortzen, heziketa-koherentziak egon behar du txikitatik. Gurasoek esaten digute “ez dit kasurik egiten!” eta nik erantzuten diet eurak direla seme-alabaren bizitzan gehien eragingo duten pertsonak,

Ruiz de Alegriaren hitzetan, “lagunekin egotea nerabearen behar bat da eta arauak ezin dira beharren kontra joan, beraz seme-alaba hilabetez atera gabe zigortzea ez da bidea, zimeldu egingo zaizu, beste era batera gestionatu behar da egoera”.

luzera denek eramaten ditugulako gure gurasoak barneratuta, horregatik laguntzen diegu gurasoei gauzak onetik ez ateratzen, egoerak lasaia go interpretatzen, alternatibak bilatzen... Txanponaren beste aldea nerabea da, berak ere gogoeta egin behar du dituen jarren inguruan, horri buruz eztabaidatu, egiten duen guztia ez dagoelako ondo eta bere lagunek egiten duten guztia ere ez. Datozen guztiei jakinarazten diegun printzipioa da portaerak kritikatu daitezkeela, baina ez pertsonak. Esan badugu nerabezaroa dela identitatea bilatzea, eta bere bizitzan garrantzitsuak diren pertsonengandik jasotzen duena bada “alferra zara, gezurtia, ez zara konfiantzazkoa...”, ba sinesten badu, txarto. Beste gauza bat da esatea “honetan gezurra esan didazu” edo “ez duzu behar adina ikasi”. Pertsonak baloratzen saiatu behar gara.

Gaztearen kalitate psikosoziala hobetzea duzue xede. Nola lortzen da hori?

Etapak ahalik eta modu egokienean igarotzen laguntzea da gure helburua, egon daitezkeen tentsioak eta familia giroan bizi dituztenak baretzea. Gure planteamendua ez da berehalako aldaketak lortzea, baizik eta landutakoa epe luzera antzeman ahal izatea. Gatazkak konpontzeak denbora behar du, orbainak ez dira egun batetik bestera desagertzten, zauri batzuek denbora behar dute ixteko. Seme-alabak portaera larriren bat izan duelako ez da pentsatu behar akabua denik, aurre egin eta segi, ezer ez da amaiera.

Norberan, gazte bakoitzak terapeuta bat du kezkez eta zalantzez hitz egiteko, beti ere lotura estu batean oinarrituta, konfiantzazko harremana lortzea, babesa sentitzea, izango delako aldaketaren eragile nagusia. Gehienak taldeka ere jartzen ditugu, beste nerabe batzuekin, adin bereko neska-mutilek zailtasunei aurre nola egiten dieten eta gertaerak nola interpretatzen dituzten partekatzeke. Eskola errefortzurako programa ere badaukagu, ikastetxeekin koordinatuta. Familiarekin elkarrizketak ditugu, bakarka eta taldeka, beste guraso batzuekin. Areago, talde multifamiliarrak ditugu, guraso eta seme-alaba ugari bilduz, gai jakinen inguruan dauden blokeoak askatzen laguntzen baitu.

Gazteak taldeka jartzen dituzue beraz, soluzio bila.

Nerabezaroan, lagunekiko harremana oso garrantzitsua da, familia alternatiba bilakatzeko da. Haurra zarenean, gurasoen ikuspuntutik begiratzen diezu errealitateari (zer dagoen ondo eta zer gaizki) eta lagunekin ibiltzen hasten garenean errealitate hori zalantzan jartzen dugu, onuragarria da hori,

ALBERTO RUIZ DE ALEGRIA

osasungarria, gure gurasoengandik ezberdindutako identitate propioa eraikitzen laguntzen digulako, baina batzuetan prozesu horrek tentsioak sortzen ditu, eta hemen, heldu bat dago gazteen arteko hartu-eman horiek kudeatzen laguntzeko eta eztabaidagaiak mahai gainean jartzeko.

Zein motatako gaiak?

Afektua, sexualitatea, ikasketak –eta bakoitzak eskolan duen rola–, gai familiarrak, komunikazioa... Iaz adibidez Sukaldaritza eta familia tailerrak egin genituen, eta balio izan zigun neska-mutilen elikatze ohiturez hitz egiteko, mahaian duten lekuaz, bakarrik ala senideekin bazkaltzen eta afaltzen al duten jakiteko... Une bakoitzean ikusten ditugun beharren arabera ateratzen ditugu landu beharreko gaiak. Esaterako, eskolan edo kanpoan norbaiten aurka oldartu badira, elkarrenganako errespetuaz mintzatuko gara. Guraso taldeekin ere lantzen ditugu gaiak, nerabearen beharrei buruzkoa izango da laster, behar kognitiboak, emozionalak eta fisikoak. Adibide bat jartzearen, kontraesankorra den behar bat dute nerabeek: gurasoak hor egon daitezela eta bakean utz diezaietela. Gurasoak esaten digunean seme-alabak logelan sartuta ematen duela eguna, erantzuten diogu ez dela gauza bera logelan egotea jakinik gurasoak etxean daudela, edo etxean bakarrik egotea. Beste behar bat da lagunekin egotea, eta arauak ezin dira beharren kontra joan, beraz seme-alaba hilabetez atera gabe zigortzea ez da bidea, zimeldu egingo zaizu, behar sozial garrantzitsu bat kamustuko diozu, beste era batera gestionatu behar da egoera.

Zenbat irauten du Norberako prozesuak eta zein arrakasta maila duzue?

Batez beste urte eta erdi inguru, baina jendeak behar duenera egokitzen saiatzen gara. Gabezia handiak dituen gaztea eta familia

Heldutasuna

“Ezin diogu heldutasun gradu jakin bat eskatu heldutasun hori izatea ez dagokion etapa bati. Egia da nerabearoa dela heldute biderako prozesua, baina prozesu irekia da. Kontrakoa ere arriskutsua da, guraso batzuek joera baitute gainbabezteko, eta seme-alabari ematen diozun mezua da ‘ni gainean ez banengo...’, baina beti ez gara gainean egongo. Heziketak amaiera du –ezin gara egon seme-alabak 30 urte bete arte arauak jartzen–; adin batera arte hezi egiten dugu eta adin batetik aurrera lagundu. Esaten da heziketa hiru zutabek sostengatzen dutela: afektiboa, arauemailea eta autonomia-bultzatzailea”.

etortzen bazaizkizu, edo kanpoko babesik ez duen familia isolatua, denbora gehiago eskainiko dizkiozu, euskarria eta sostengua behar dutelako, segurtasuna. Beste batzuk egoera jakin batengatik etortzen dira eta denbora gutxi behar dute.

Alta ematen dugunean nerabeak hobekuntzarik izan al duen baloratzen dugu. Orain arteko datuen arabera, gutxi gorabehera erdiak hobekuntza egokia lortu du, laurdenak partziala eta beste laurdenak hobekuntza nabarmenik ez. Halakoetan, arrisku egoerak edo babes faltak bere horretan jarraitzen badu, gaztea lagundu dezaketen beste zentro batzuetara bideratzen dugu.

Nola ikusten duzu oro har egungo gaztedia?

Betidantik esan izan da baloreen kontra doazela gazteak eta halakoak, baina nerabearoa osasungarria da, konfiantza izan behar dugu, ez eskandalizatu. Jendeari ardurak eskatu behar zaizkio, oker jokatu duenean, baina ez gara ibili behar errudunak bilatzen; gutxiengoa dira gauzak gaizki nahita egiten dituztenak. Bestalde, egungo ingurumarian kokatu behar dugu nerabearoa. Adibidez, 1960 eta 1968 artean jaiotako belaunaldia heroinak harrapatu zuen bete-betean eta asko eta asko hil ziren, baina gaur egun apenas kontsumitzen den droga hori: arazoak ezberdinak dira? Ez, testuingurua da ezberdina. Neska-mutilek testuinguru baten barruan adierazten dituzte euren zailtasunak, eta testuingurua aldakorra da. Aurreko testuinguruekiko ezberdinak diren hainbat adierazpide utziko dizkigu krisi ekonomikoak, belaunaldi bakoitzak idiosinkrasia propioa duelako. Garai batean bazirudien nerabeen eskubidea zela motorra izatea, baina hori ez da hala izango aurrerantzean... Bizipenak, inpultsoak, zailtasunak, gabeziak adierazten jarraituko dute, baina beste era batera. ■





Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.



BIZKAIA BIZIA



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



JOKO
GARBIA

LET'S GO %

2016rako hiri hondakinen %60 birziklatuko dugu. **Jokatu garbi Donostiarekin.**





DANI BLANCO

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Kosovo, garbiketa etniko ia perfektua

OTSAILAREN 17AN, Kosovoko sezesio aldarrikapenaren bosgarren urteurrena ospatu zen. Halere, praktikan sezesioa 1999an gertatu zen NATOko indar armatuek lurraldea okupatu eta bertan neokoloniala bat jartzea erabaki zutenean. Orduetik, estatu berri horretan garbiketa etniko ia perfektua burutu da NATOko indar armatuen begien aurrean.

Nazionalitate eta gutxiengo etniko desberdinek populatu zuten Kosovo historian zehar. XIX. mende amaiera arte serbiarrak izan ziren gehiengoa, baina aurreko mendeetan gainbehera demografikoa ezagutu zuten albaniarren alde. Azken hauek okupatzaile otomandarrekin kolaboratzeagatik egoera soziopolitiko hobea erdietsi zuten. Serbiarrek aldiz, okupatzaileen kontra egin zuten gerra desberdinetan eta, ondorioz, noizbehinka batzuek ihes egin behar izaten zuten kristauen kontrolpeko lurraldeetara. Gero, XIX. mendean serbiarren askapen nazionalerako borroka aurrera egin zuen heinean, Kosovoko serbiar ugari alde egin zuten iparraldeko lur liberatuetara.

Nazionalitate eta gutxiengo etniko desberdinek populatu zuten Kosovo historian zehar. XIX. mende amaiera arte serbiarrak izan ziren gehiengoa, baina aurreko mendeetan gainbehera demografikoa ezagutu zuten albaniarren alde. Azken hauek okupatzaile otomandarrekin kolaboratzeagatik egoera soziopolitiko hobea erdietsi zuten

XX. mendean joera mantendu egin zen eta albaniarrak gehiengo bilakatu ziren Kosovon. II. Mundu Gerran, faxisten zerbitzura zeuden albaniarrek 10.000-30.000 serbiar erail eta 100.000-250.000 Kosovotik ihes egitera derrigortu zituzten. 1961eko erroldan, albaniarrak (kulturalki asimilatutako ijitoak barne) %67 ziren eta serbiar-montenegroarrak %27,5 (eslaviarrak oro har, %30). Joera hau

sakonki areagotuko zen hurrengo urteetan. Izan ere, Albaniatik ehunka mila etorkin iritsiko ziren Kosovora arrazoi ekonomiko edota politikoak tarteko. Bitartean, serbiarren artean milaka batzuk lurralde aberatsagoetara (Serbia, Suitza eta Alemania) emigratu zuten, kasu askotan albaniarren jazarpenak lagunduta. Ondorioz, 1995eko argazkia honakoa zen: albaniarrak %90 (kulturalki asimilatutako ijitoak barne) eta serbiar-montenegroarrak %6,7.

Egoera demografiko horren aurrean, eskualdeko errealitate nazionala, soziala eta historikoa kudeatzeko tresnarik egokiena independentzia zen. Kosovoko Estatuak bere biztanle guztiena izan beharko luke, nazio eta etnia guztien kultura eta hizkuntza errespetatu eta sustatu beharko lituzke. Errealitatea ordea ez da horrela suertatu. Serbiar estatuak ahaleginak eta bost egin ditu agertoki hori saihesteko eta albaniar nazionalisten gehiengoak ez du inoiz sinetsi tankera horretako Kosovo batean, bere benetako asmoa eskualdea albaniartzea izan da Albaniarekin batasuna justifikatzeko. Hori lortzeko zuten arazoak jabetuta, estrategia egokitu eta Kosovoko estatu albaniarra eraikitzen bideratu dute beraien borroka.

1999ko gerra ostetik, Kosovoko gutxiengo desberdinetako 300.000 pertsona inguruk ihes egin dute eta egun oraindik ihes egiten jarraitzen dute geratzen diren apurrak. Errefuxiatuak beraien etxetara bueltatzeko egin diren saiakera gehienek huts egin dute erasoak eta erailak izan direlako, besteak beste bonbez. Guzti horren uzta da Kosovotik ihes egin zuten errefuxiatuak Balkanetako guda guztien artean kopururik handiena izatea, adibidez, Bosnia-Herzegovinako bikoitza baino gehiago. (Iturria: ACNUR). Orain gelditzen diren serbiar gehienak Iparraldeko Mitrovica hirian daude gotortuta. Ez dira populazio osoaren %3ra iristen eta ez dago jakiterik luze irauteko aukerarik izango duten. Garbiketa etnikoa ia perfektua izan da, besteak beste, serbiar eta gainontzeko gutxiengoaren kontrako krimenak ia zigorgabetasun osoa dutelako. ■







GAIZKA IROZ

Anuntxi Arana

ANTROPOLOGOA ♦

Dantza jauziak

INOIZ Zuberoa, Nafarroa edo Lapurdiko plaza batean ikusi badituzue zahar eta gazteak borobilean dantzan, bata besteari jarraika, *Dantza jauziak* zer diren badakizue. Atseginak, errazak eta jendeekikoak dira, eta aire desberdin asko dituzte, besteak beste, Iparraldean, *Azkaindarrak*, *Milafrangarrak*, *Ostalertsak*, *Muneinak*, *Mutxikoak*... Haietan, adineko lagunei entzunda, betidanik emazteek eta gizonek parte hartzen izan dute.

Tradizio zaharreko dantza horiek indar handiz berpiztu egin dira azken 30 urte honetan, eta ez da jairik haiek gabe. Baionako bestetan euskal kutsua duten ekitaldietan ospetsuenetakoa da arratsero egiten den *Dantzazpi*, gehien bat dantza jauziei emana. Beste herri zenbaitean, urte osoan antolatzen dituzte, hilabetean behin.

Alabaina, dantza jauziak azkartu eta zabaldu diren arabera, mutxikoak deitzen hasi dira, nahiz eta, beste kultur jarduera askotan bezala, mutilak gero eta gutxiago aritzen diren eta neskak gero eta gehiago. *Mutxikoak* aire zehatz bat baizik ez da eta, gaur egunean ere, aditu gehienek *Dantza-jauziak* erabiltzen segitzen dute multzoa aipatzeko orduan. Ez dakit nori bururatu zizaion izen berria ematea, baina ez duela batere kausitu pentsa daiteke.

Dantza jauziak azkartu eta zabaldu diren arabera, mutxikoak deitzen hasi dira, nahiz eta, beste kultur jarduera askotan bezala, mutilak gero eta gutxiago aritzen diren eta neskak gero eta gehiago

Katu honek beste buztanik baitauka Iparraldearen auzo herri batean.

Baztanen *Mutil dantzak* esaten zaizkio mota horrelakoei eta hor ere aire desberdin eta anitz badituzte, baita *Muxiko* deitu bat ere, Iparraldean bezala. Eta, Iparraldean ez bezala, Baztanen gizonek bakarrik zuten *Mutil dantzak* dantzatzeko eskubidea, hainbestearino non kalapitak izaten diren emazteak ausartzen direnean. Ez da oraino bi urte, Elizondoko Santio jaietan, emazteak –auzapeza buru– mutil dantzan sartu ziren; berehala gizon zenbaitek alde egin zuten haserre bizian, dantzaren izena estakuru eta ohitura defendatzeko. Bidasoako Alardeen antzeko zerbait.

Gertakari horretatik ikasi behar genuke bazterkeria giroan sortu eta elikatzen den terminologiak bazterkeria bermatzeko balia daitekeela eta, orainokoa ere gure testu inguru linguistiko-sozialean, peligr osoa izan daitekeela neutroa den *dantza jauziak* terminoa uztea eta maskulinoa den

mutxikoak hobestea. Ez dut ondo ulertzen zergatik baztandar batzuk tematzen diren gainditzekoa den antzinako ohitura atxikitzen; eta oraindik gutxiago ulertzen dut zergatik Iparraldean bizkarra ematen dioten beren tradizio ki zizendapen sinpatikoari. ■



DANI BLANCO



Ixiar Rozas



IDAZLEA

Hazia

NEK. Lurra zulatu ondoren, bertan hazia barreiatu edo sartu. *Trans.* Transgenikoa, genetikoki eraldatutako organismoa, hau da, beste espezie baten generen bat duen organismoa. Hazi transgenikoek makina modura ulertzen dute gure gorputza. Ordenagailuen gisa moztu eta itsatsi egiten dute, modu serialean *ad infinitum* kopiatuz. Transgenikoak bizitza dakarte, *nuta vita*, alabaina gorputza makina modura ulertzen duen bizitza eraldatua. Haziak, eraldatu ez diren haziak, urteetako informazioa darumate txertatuta, informazio sintesi eta iturria dira, eta bioaniztasun kulturala eta his-

torikoa sortzen dute. Jakina denez, hazi transgenikoak hedatu ahala suntsituz doa tokian tokiko haziak urteen poderioz lortutako bioaniztasuna. *Zoe*-ren (bizitza biluzia) eta *bios*-en (bizitza kulturala) arteko desberdintasuna kontuan badugu, transgenikoek, paradoxikoki, *zoe* izaki *bios* suntsitzen dute, heriotza dakarte, *tanatos*. Heriotzaz inguratutik, beraz, pozgarria da Donostiako Kristinaeneak abiarazi duen “Haziera”. Artxibo bizia. Arrakala mikropolitiko bat. Haziak, setiatzen gaituen *tanatos*-i zuloak ereiten. ■



DANI BLANCO



Gorka Bereziartua

◆ ARGIAKO KAZETARIA

Amazon, inperio ezkutua

ZALAPARTATSUA izan da otsaila Amazon liburu saltzaile erraldoiarenean: Alemanian daukan biltegi bateko langileak ia esklaboen pare lanean ari zirela plazaratu du ARD telebista kateak; baita beharginak kontrolatzeko neonaziekin harremana daukan segurtasun enpresa bat kontratatu zutela ere –Hensel European Security Services izena zeukan segurata negozioak, HESS alegia, Rudolph Hess bezala–.

Material ona da nobela baten-tzat eta idazten baduzu, Amazon-ek salduko du ziur.

Eten dute kontratua biltegi-ko manporrero esbastikoekin eta bukatu da festa mediatikoa. Letra txikiagotan ordea, AEBetako konpainia hazi eta hazi ari da. “Amazoneko Jeff Bezosek ez du inperio bat nahi, mundua nahi du” argitaratu du TechCrunch webgunean John Geracik.

“Ezkutuko inperioa” deitu dio: “Amazon, nolabait, erraldoi sekretua zen. Mundu guztiak Amazonen erosten zituen liburuak, noski, baina 2011n iritzi orokorra zen Apple, Google eta Facebook zirela garaian garaiko erraldoiak. Konpainia horiek ziren momentuko bisionario sexyak. Amazon? Tira, liburuak eta abar saltzen zituen, besterik ez”.

Bi urtean gauzak asko aldatu dira: Kindle irakurgailu elektronikoa esperimendu arrakastatsua izan da, kostu baxuko tresnekin Appleri konpetentzia egiteko;

negozio-eredu berriak sartu dituzte menuan, ikasleei testu-liburuak alokatzea, adibidez; eta batez ere, Amazon Supplyren bidez banaketa industrialaren merkatuan sartu dira –dirua egin nahi duen inori axola al zaizkio liburuak, azken finean? –.

Material ona da nobela baten-tzat eta idazten baduzu, Amazon-ek salduko du ziur

Geracik txosten interesgarri baten berri eman du: *Amazon: the hidden empire*. Hori irakurri eta Bezosen enpresaren dibertsifikazio-estrategia noraino iristen den konturatu zara, nahiko luke: ba al zenekien hainbat webgune ezagun –Internet Movie Database, adibidez–, Amazonenak direla? Eta beraiek daudela *The Guardian* egunkari ingelesaren, Ericsson telefono konpainiaren edo Dropbox fitxategi plataformaren weben atzean?

Txostenaren ondorioa: Amazon-ek dena eskaini nahi du, edonon, edozein unetan, edonori. Eta inork ezin du horrekin lehia-tu. Erosleen esku ere badago, ordea, burujabe izan eta muntroari jaten ez ematea. Ze, Amazon-ek ez du neona-zien premiarik munduaren jabe egiteko. Baina zu behar zaitu. ■



BERTSO BERRIAK

Wert erreformari jarriak



DANI BLANCO

Iñaki Murua

◆

Doinua: Esne saltzailearena.

Zertako berrikuntza pedagogikoa? neurtuko duk emaitza akademikoa; fuera berdintasuna, eraiki mitoa. Euskarak behe maila erdarek goikoa... errepikatzen zaigun geroglifikoa!


Una, grande y libre urrup, edan ta klik urte askoko lana pasa nahi duk gaindik komunitate oso bat Paseo Colondik neuronak dariola habil edonondik botila bete batek antosina on dik!

Ikasle eleanitz euskalduna nahi guk dezan geurea biziz mundua ezagut. Hik D eredu ere desagertu kaput; baina lasai tokaio, zerbait ona ein baituk: zaituta geundenok Wertebra tu gaituk! ■



Beñat Sarasola

♦ IDAZLEA



ZALDI ERO

Autobusa

EZ GARA mordo bat, onartu beharra dugu. Baina salbuespen ohoragarri gutxi batzuk landa –oro emakumezkoak, bidenabar– Lubaki bandaren belaunaldia- ren ondorengo idazle ustekook –1980etan jaiotakook edo–, alferkeriaz gabiltza enpo. Euskal literaturaren Autobusa da gurea, kontroletik at geratzeko arriskuan beti. Errepidea aldeko dugula azeleratzen duguneta- koak gara. Pentsa, *Sautrelan* erreportajea egin zuten euskal literaturaren azken boladako balizko sikutasu- naren gainean, Autobusa jopuntuan. Auto- busa, *also known as* Barrebusa.

Kexan hasteko goizegi dela iru- ditzen bazaizu, irakurle, egizu kontu badirela urte batzuk dagoe- neko gutariko zaharrenei Gazte Txartela kendu zietela, eta gainera, dakizunez, euskal literaturan, 25 urtetik gorako edonor da automati- koki beterano. Errazena litzateke literatur sistemaren inguruan kexa- ri ematea; Jon Kortazar, Mari Jose Olaziregi, Bernar- do Atxaga eta are CIAren konplota sala- tzea. Euskadi saririk jaso ez dugula gogora- raztea –azken batean, Tropelekoei ongi atera zitzaien jokaldia–, ezta Espai- niako Sari Nazionalik ere –eman diezagutela lehenik; gero egingo diogu, nola ez, uko–. Errazena litzate- ke, bada, hori guztia, baina ez gaitezen engaina, Miracruzeko gainean ere deskolgatuta geratzaren ardura gurea baino ez da.


Gurea baita bi poema liburu eskas argitaratuta zerbait egin dugula uste dugunon belaunaldia. Blog batean erantzun bat utzi eta luze gabe deituko dizute komunikabideren batetik ea zutabe bat idazte- ko prest zauden galdezka, edo okerragoa dena, ea kri- tikagintzan hasi nahi duzun. Angel Errok, zeina 1978koa izanagatik derrepentean belaunaldiratu dugun hari baimenik eskatu gabe, esan du berriki poeten artean halako

lehia ezkutu bat nagusitu dela ea norik uzten duen liburu batetik hurrengora tarterik handiena. Hori, Autobusean, praktika orokortua da. Erreguka ibiltzea da, ezbairik gabe, Autobusaren sedukzio forma behi- nena.

Baditugu, hala, pare bat txikikeriarekin beren burua idazletzat jotzen dutenak, baina bada beste kasta oraindik erradikalagorik ere. Horiexek dira Aritz Galarraga eta Gorka Bereziartua lako obrarik gabeko idazleak. Abangoardietako ideal zaharra berreskuratzen duten artistak dira, nonbait; obraren objektu izaera mespretxatuz, artea bizitzara, egunero- ko praktikara –ezerezera alegia– eramatearen premia dute aldarrikatzen. Ismoak aspaldi joan zirelarik, historiako azkenekoa besarka- tzen dute: gantzarainismoa. Ezagun da, ostera, abangoardia izan dela histori- koki alferkeriaren alibi sotile- netako bat.

Grabeena, halere, zera da, izurritea are idazle gaztea- goengana ere iritsi dela, Peter Ostolazaren *Gure belaunaldia*z testua testigu, non halakoak irakurtzen ahal diren: “Pare bat esaldi eki- bokatu papereratzea baino isiltasunaren perfek- zioa nahiago dugu aukeran, oi guk, kriti- katuko, gaitzetsiko, akaso egurtuko gaituz- ten beldur garenok.”

Halaxe gabiltza. Ez dago zalantzarik, euskal literatu- raren etorkizuna alfer hauen guztien eskuetan uztea temeritate hutsa baizik ez da. Arduragabekeria demasekoa. Ez etorri gero lantuka bertsoariak tostada konfitura eta guzti jan dizuetela eta. Noiz utziko dituzue nagikeriak, aitzakiak? Noiz hasiko zarete behingoz taxuzko zerbait idazten (esan nahi baita, nobelatzar bat, ipuin bilduma gotor bat?). Noiz utziko duzue amaren altzoa? Noiz ipiniko zarete lanean? Noiz utziko diozue twi- tatzeari? ■



Antton Olariaga



Bixente ARGIA_{rentzako}



1978. urtean

Bixente Ameztoyk

Zeruko Argiarako egindako

36 azal.

Bilduma honek

Joseba Sarrionandiaren

hitzaurrea darama.

- 36 lamina
- Karpeta
- 210x280mm.



· Prezioa: 20€

· Harpideentzako: 15€

Kulturarekiko konpromisoak badu saririk

Krisiak, zergen igoerak edota aurrekontuen murrizketak kinkan jarri dute kultur industria. Hala ere, Pio Ortiz de Pinedoren ustez, kultur sorkuntzaren sektorea gogorra da, dagoeneko egin die aurre beste krisi mota batzuei. Urte askoan Hortzmuga antzerki taldeko gerente izan da Ortiz de Pinedo, baita, gerora, Euskal Herriko Produkzio Eszenikoen Enpresa Elkartuen zuzendaria ere. Egun, Kulturtick edo kultur zaleen klubeko arduraduna dugu.

| MYRIAM GARZIA |
Argazkiak: Kulturtick

“EUSKAL SORTZAILEAK, ekoizleak eta taldeak bultzatu behar dira, kultur proposamenek aurrera egin dezaten. Eragileok dirua jarri eta arriskua hartzen dutelako. Baina hori bezain garrantzitsua da kultur prozesuaren azken kate-begira heltzea, alegia proposamen horiek erakustera, banatzera eta komunikatzera. Inork ez du kutxa itxi baterako sortzen, publikoak ikus ez dezan. Kultur proposamen orok publikoarekin partekatzea, kritika sortzea, parte-hartzailea izatea, mezu bat transmititzea eta zeresana sortzea ditu helburu. Horregatik, oinarritzkoa da kultur kontsumoa bultzatzea, publiko berria bilatzea eta dinamizatzea, eta horrek guztiak sor dezakeen fideltasuna saritzea”. Horrela laburbiltzen du Kulturtickeko zuzendari Pio Ortiz de Pinedok kulturzaleen klub sortu berri honen xedea.

Euskal Autonomia Erkidegoan jaio bada ere, Euskal Herri osora zabaltzea dute helburu, “kulturak ez baititu muga administratiboak ulertzen, eta gehienetan, gainditu egiten ditu. Euskal kultura denon nortasuna da, batzen gaituena”, argudiatu digu Ortiz de Pinedok. “Kultur kontsumoa bultzatzen duen kluba da gurea, kulturarekiko interesa eta konpromisoa erakusten duten bazkide multzo handia sortu nahi dugu”.

Klub honek abantailak eskaintzen ditu kultura kontsumitzeko orduan, nagusiki prezio merkeagoak eta proposamen bakanak. “Gakoa ez da, hala ere, sarrera prezioa txikitzea, publikoa zirikatzea eta kulturarekiko fideltasuna saritzea baizik. Gure bazkideei

modu iraunkorrean eman nahi diegu abantaila, urte osoko eskaintza anitza eta zabala eskainiz, kultur eremu guztiak hartuz”. Arte eszenikoak, musika, zinema, ikus-entzuzkoak, museoak edota liburu aurkezpenak lantzen dituzte batez ere. Era berean, kultur proposamen hauek bultzatzen dituzten espazio, areto edo promotoreei, zabalkunde eta komunikazio zerbitzua eskaintzen zaie.

Menu kultural anitza eta kalitatezkoa

Kulturticken atzean, Eskena (Arte Eszenikoen enpresak biltzen dituen elkarte), Kultura

Live (Euskal Herriko zuzeneko musika aretoen elkarte), Last Tour Internacional (BBK Live Jaialdiko antolatzaileak, besteak beste), Zineuskadi (zinemagintza enpresen elkarte), Metaposta eta Liburu Saltzaileen Elkarte daude. Badira beste bi bazkide estrategiko ere. Alde batetik, EITB. Hitzarmen bati esker, kultur proposamenak astero ematen dira argitara.

Eta beste aldetik, TR3SC, Bartzelonako kultur kontsumorako kluba, duela sei urte sortua. “Haien esperientzia oso baliagarria zaigu”, dio Ortiz de Pinedok.

Kulturtick-ek eremu publikotik zein pribatutik datozen proposamenekin egiten du lan, zenbait kultur promotore eta aretoekin. Lurraldetasuna zaintzen dute eta ahalik eta publiko anitza erakarri nahi dute, bertako sortzaileak bultzatzea ahantzi gabe. “Kulturtick euskal sortzaileentzat tresna baliagarria izatea nahi genuke. Zentzu horretan, euskarazko proposamenak urriagoak badira ere,

“Gakoa ez da sarrera prezioak merkatzea, publikoa zirikatzea eta kulturarekiko fideltasuna saritzea baizik”

**Pio Ortiz de Pinedo,
Kulturtick-eko arduraduna**



dauden guztiak edota gehienak ikusgarri izan daitezen saiatzen gara, diskriminazio positiboa eginez”.

Egun 600 bazkide inguru ditu Kulturtick klubak, baina abian jarri dituzten promozio bereziak direla eta, 1.000 bazkidera heltzea nahi lukete. Promozio berezi hauek, ikuskizun handietarako abantailak eskaintzen dituzte. Hala nola, Circ du Soleil edota BBK Live Jaialdirako sarreretako deskontuak. Bazkide izateko izena emanez gero, Circ du Soleil-ren azken lana, Kooza, ikusteko sarrera bat oparitzen du klubak. Bazkide zaharrek ere %20ko deskontua dute ekimen hauetan.

Klubeko bazkide izateko bi modalitate daude, eta bi prezio. Urtean 32 eurokoa bata, eta urtean 52 eurokoa bestea. Bigarren honek

Kultur zaleen kluba da Kulturtick. Erdian, Pio Ruiz de Pinedo ekimenaren arduraduna, alde banatan Gazterarteko antolatzaileak dituela.

Tick Oparia jasotzeko aukera ematen du, alegia, ekitaldi jakin batzuen artean doako bi sarrera eskuratzekoa.

Gainera, Klubeko bazkide txartel bakoitzeko deskontuak bi pertsonentzat dira. “Ikuskizunera jende gehiago erakartzeko da honen helburua, bazkideak lagun bat ekartzeko eta kultur kontsumoa bikoitza izatea”.

Eskaintza-eskaera neurgailua

Kluba termometroa ere bada, Euskal Herrian dagoen eskaintza kulturala neurtzen du, “gure bazkideek zer duten nahiago, interesa zerk pizten dien jakitea ahalbidetzen du. Orain arteko ibilbidea motza da, baina aurrera begira, publikoaren eskaeraren berri ere izango dugu, eskaintzarena izateaz gainera,

NAFARROAKO BERTSOLARI TXAPELKETA

13

ZIALA SARE SOZIALA

FINALAURREKOAK

Martxoak 9:
ELIZONDO
17,30
Lur aretoa

M. M. Elozegi "Luze"
Julen Zelaieta
Aimar Karrika
Oier Lakuntza
Xabier Maia
Saloa Alkaiza

www.nafarroakotxapelketa.com

Antolatzailea:

Laguntzailea:



JON RODRIGUEZ



eta informazio hori oso baliotsua da”, Ruiz de Pinedoren hitzetan.

Sektoreko elkarte profesionalak ez ezik, sortzaileak ere Kulturticken atzean daude. Azken finean, sortzailea ere kultur kudeatzaile izatera behartuta dago. “Berez, ez luke hala behar, sortzaile gehienek ez baitute tamaina handiko azpiegiturarik, baina sortutako lanaren transmisore nagusi bilakatzen dira. Ez da lan atsegina sortzaile askorentzat. Egia da, bestalde, hainbat kultur sektore hartzen dituzten elkarte profesionalak sortu direnetik, nahikoa erraztu eta hobetu dela lan hau. Eskena edota Kultura Live bezalako azpiegi-

Kulturtickek arte eszenikoak, musika, zinema, ikus-entzunezkoak, museoak edota liburu aurkezpenak lantzen ditu batez ere. Goiko irudian Ttanttaka aurzerki taldearen Gauerdian komedia. Behean Fermin Muguruza.

turak balia daitezke kudeaketa lan honetarako. Kultura bera ere profesionalizatu egin da, eta hainbat enpresa sortu da. Eremu publikoa izan da, azpiegitura profesional huez aparte, kultura bera gehien kudeatu eta egituratu duena. Lehen kultur kudeatzaileak udalak eta erakunde publikoak izan dira, kulturarako sarbidea herritarren eskubide bihurtu dutenak”.

Kultur kontsumoa bultzatzea da Kulturtickeko xedetako bat, baina ona al da kontsumoa eta kultura elkarri lotuta joatea? Pio Ortiz de Pinedoren ustez, “kulturan, beti uxatu da nolabait ekonomia. Askotan salmenta ez dute gustuko, banaketaz eta kontu hauetaz hitz egitea. Baina dudarik gabe, berezkoa du. Kontsumoa ez da txarra, denok kontsumitzen dugu: janaria, arropa... Zergatik ez kultura? Horren baitan bada artisautza lana eskatzen duen ekimenik ere, eta hauek merkaturatzea zailagoa da, baina kultur industriaz hitz egiten dugun unetik, kontsumoa premiazkoa da proiektuak aurrera egin dezan. Egun, ekoizpena eta sormena erabat lotuta daude kontsumoari”.

Krisi garai hauek ez zaizkio mesedegarri sektoreari. “Produkzioa egon badago, eta ona da” aipatu digu Kulturtickeko zuzendariak. “Kulturaren sektorea oso erresistentea da izatez, behin-behineko baldintzetan dihardu aspalditik. Sufrimendu eta autogestio ahalmen handia dago, onerako eta txarrerako. Logikoki, egoera honek ezin du luze iraun. Lana ona izan dadin, baliabide egokiak behar ditu. Batzuek uste dute krisi garaietan berpiztu daitekeela kultura. Ez nago ados. Kultur-turan, beste sektore batzuetan bezala, beharrezkoak dira lan baldintza duinak, fisikoki eta mentalki, sormena egokia izan dadin”. ■



«Argazki bakoitzeko istorio bat kontatu nahi izaten dut»

Sare sozialek duten indarragatik heldu da Ion Markel Saez de Urabain argazkilaria (Lazkao, 1970) Donostiako Okendo Kultur Etxera. Interneten, Flickr-en eta antzeko galerietan lan ugari duen arren, lehendabiziko erakusketa fisikoa du Kalekumeak deiturikoa. Iphonography munduak jarri du bogan. Iphonekeriez mintzo da bera.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |
Argazkiak: Ion Markel Saez de Urabain

Jende anonimoa erretratatzen duzu. Non ikusten diozu magia horri?

Jende anonimoak daukana naturaltasuna da. Ezagunei argazkia ateratzen hasita, lehenengo gauza, konturatu egiten dira argazkia atera nahi diedala. Jendea ez konturatzeara bilatzen dut, argazkiak indarra galtzen baitu bestela. Kaleko argazki hauean, Kalekumeak bilduman, istorio bat kontatu nahi izaten dut argazki bakoitzeko. Istorio arruntak dira, gure begien aurrean egunero pasatzen direnak. Abiadan bizi garenez, ez diegu erreparatzen, ez dugu horretan pentsatzen, eta nik, patxadaz, eszena hori hartu eta nabarmendu egiten dut, bakoitzak bere interpretazioa egin dezan, eszena arrunt horren atzean zer dagoen osa dezan.

Anonimo horietatik asko, jende zaharra da.

Adin batetik gorako jendeak istorio gehiago du, azken batean. Kanean ikusten dudana zaharrak gazteak baino gehiago esaten dit nolabait, aurpegiagatik, edo egoteko moduagatik, egiten ari denagatik... 90 urteko pertsona batek bizi izan dituenak argazkian harra-patzea politagoa da, saiatzea behintzat.

Hain gardenak al dira?

Ez dut benetako istorioa harrapatzera jotzen. Ez dut esan nahi ikusten dudana istorioak



Ion Markel Saez de Urabain. Autoerretratua.

errealia izan behar duenik. Istorio horren interpretazioa egiten dut, argazkia ikusten duen bakoitzak bere istorioa ikus dezan nahi dut. Eszena bat ematen dut, nork bere istorioa asma dezan.

Zein dira batez ere interesatzen zaizkizun egoerak?

Egunerokoak. Ez dut eszena anormalik edo fantasiako egoerarik bilatzen. Erosketan ari den emakumea, ohiko edadeko koadrila bankuan eserita berriketan, txikiteroak... Ohikoa bilatzen dut, normala, eguneroko abiadan arreta pizten ez duena.

Benetakotasuna interesatzen zaizula esan izan duzu. Zer da hori zure begietatik, nola esplikatzeko da?

Benetakotasuna naturaltasuna da nire ustez, posetik edota artifiziorik gabekoa. Pertsona den bezalakoa hartzen saiatzea da, horrek ez du esan nahi pertsona hori beti horrelakoa denik, bere bizitzako momentu bat hartzen edo lapurtzen diot, eta une horretako naturaltasuna bilatzen dut.

Argazki zuri-beltzak dira denak. Zergatik?

Koloretan emanez gero, ikusleari gehiago markatzen diozu bidea, kontatu nahi duzun horretara bideratzen duzu errazago. Ikuslea inplikatzeko orduan, zuri-beltzak imajinazioa



lantzea eskatzen du, ikusleak berak jarri behar dio kolorea.

Arrazoi estetikorik ere izango duzu.

Bai. Garai bateko kamera analogikoen itxura lortu nahia ere bada.

Konta iezaguzu istorio bat.

Ez naiz batere trebea. Horregatik eramaten dut kamera aldean. Argazkiak ateratzeko uneaz ari bazara, adibidez, M 15eko hartan Madrilen nintzen. Argazki asko hartu nituen iPhonez, baina baita inplikatu ere, argazkiak ateratzen ari nintzen bitartean laguntza eskatzen zidaten, interakzioa zegoen. Kasu horretan naturaltasuna eskasa da. Baina polita ere huraxe zuen, argazkiak ateratzen ari nintzen bitartean, bertan sartzea, inplikatzeta.

Batzuetan zaila izango da kanpo geratzea.

Tira, gehientsuenetan kanpo geratzen zara, inplikatzan hasten bazara naturaltasun hori galtzen delako. Langatik bezala begiratu behar duzu naturaltasuna bilatzeko.

Gizakiaren presentzia ezinbestekoa da zure argazkietan?

Kalekumeak bilduman bai, izenburuak berak dioenez. Atera izan ditut paisaia hutsak, hirikoak nahiz naturalak, garai batean gehiago. Orain gizakiaren presentzia bilatzen dut, erreportaje soziala interesatzen zait.

“Ez naiz etengabe kliskatzen aritzen. Ez da argazkiaren bila joan behar, hura etorriko da zugana, baina prest egon behar duzu”

Nola heldu zinen Okendoko Kultur Etxera?

Sare sozialek duten indarragatik. Kontatu zidantenez, lotura bat iritsi zitzairen, Flickr-eko nire webgunea bisita zezaten. Donostiako argazkiak omen nituen, gustukoak, eta iPhonez eginak. Horregatik eman zidaten aukera. Gaur egun argazki asko hartzen dut iPhonez, gehienak Kalekumeak-erako, baina baditut esaterako abstraktuak. Erakusketarako argazki sozialak indar handiagoa izango zuela iruditu zitzaidan.

Kalekumeak ez da gaur hasi eta bihar buka litekeen proiektua, erakusketa jarrita badago ere, horretan jarraitzen dut. Ez da sekula bukatuko. Halaxe nahi nuke, behintzat.

Bizitzeko lain ematen al dizu lanbide honek?

Momentuz ez. Argazkigintza profesionalerako bidea hartu nahi nuke, erreportaje sozialak eginez, familia erreportajeak, umeenak, ezkontzak, gizakiak beti ere. Ez da erraza.

Iponekeriak omen dira zureak.

Hitz jokoa da. AEBetatik dator kontu hau, Appleren telefonoa bezala. Han Iphonography izena jarri zioten. Gauzak gure estilokan esatea gustatzen zait, eta zentzu horretan, Kalekumeak nahiago, Street Photography baino.

Iphonean bertan tratatzen dituzu argazkiak.

Telefono marka gehientsuenek denda dute, eta bertan aplikazioak salgai. Argazkiak tratatzeko sorta handiena, alde handiz gainera,



Applek du. Pixkanaka joan naiz horretara, bat eta beste probatzen, eta azkenean biz-pahiru hobetsi ditut. Argazkia normal hartzen dut, koloretan, eta gero bi aplikazio baliatzen ditut. Bat, argazkia mozteko, enkoardatzeko, eta bestea, zuri-beltz bihurtzeko prozesurako. Azken finean, lehen ordenagailuz egiten zen lana telefonoan bertan egin dezakezu orain.

Nola erabaki zenuen iphonea argazkiak egiteko tresnatzat hartzea?

Teknologia zalea izan naiz beti. Eguneratuta egotea gustatzen zitzaidan. Lehen iphonea telefonoa behar nuelako erosi nuen, ez nuen argazkiak ateratzeko asmoz hartu. Orduan, gainera, ez zuen kalitate oneko argazkirik egiten. 2008an hasi zen iphonography mundua, bigarren modeloa atera zutenean. Probatu egin nuen, eta 2009ko ekainean proiektu bat ondu nuen, 365 aztarna deiturikoa [365 autoerretratu sareratu zituen Flickr-en, urteko egun bakoitzeko bat: www.flickr.com/photos/iphonekeriak/]. Oihartzun zabala izan zuen, jendeari gustatu zitzaion. Oso esperientzia ederra izan zen, ordurako hasia nintzen kameraz gauzak harrapatzen. Baina ez uste etengabe kliskatzen aritzen naizenik. Ez noa horretara. Ez da argazkiaren bila joan behar, hura etorriko da zugana, baina prest egon behar duzu, telefonoa aldean duzula. Erangarriak horixe du ona. Gainera berehala pizten dira gaurkoak, prozesadore askoz hobeak dituzte.

Ez al da bitxia, jende anonimoa baina telefono marka hiper-ezaguna?

Gaurko telefonoak ez du zertan izen bat atzetik eramanik. Horrek ez du garrantzirik. Tresna besterik ez da, eta balio duena azken emaitza da. Iphone hitzak indar handia du gaur egun, nire erakusketa egin bada, mundu horrekin bat egin dudalako izan da, baina kontraesanik ez diot ikusten.

Izenak berak propaganda egiten duelako diot.

Argazkilaritzan beti izan da izena gako, hor dira Canon zaleak eta Nikon zaleak. Jende arrunta aparatu horren jabe egin delako hartu du hainbesteko indarra.

Kalekumeekin aurrera zoazela diozu. Beste proiekturik?

Proiektu txikiak gustatzen zaizkit, herri festa, kulturako gauzak... Egun bateko lanak, norabait joan eta erreportajea egitea.

Zer diozu bideoaz?

Estetikarekin eta irudiarekin zerikusia duen guztiak erakartzen nau, marrazkiak, bideoak, orok. Baina momentuz ez naiz horretan sartu. Probak egin ditut baina besterik ez. Gaurko argazki-kamera onek, reflexek, sekulako kapazitatea dute, pelikulak ere egiten dira, eta kalitatezkoak. Gero eta erlazio handiagoa du gainera, argazkiarekin. Ezagun da irudiak beste estetika bat bilatzen duela. Beste mundu batean sartzea litzateke, eta denbora behar da. Ez gara denetara ailegatzen.

Zerk eraman zintuen argazkigintzara?


Beti gustatu izan zait argazkiak ikustea, etxe-koak, aitak egindakoak, gero familian ere banuen argazkilaria, osaba bat, gero haria lotzen joaten zara, marrazkiak egitea ere gustatzen zitzaidan, eta iruditzen zitzaidan errazagoa argazkigintza, eta eskua ere banuela... Ideiak ateratzeko bide bat da. ■



- Suteen aurkako babesa
- Uren horniketa eta trataera
- Instalazio elektromekanikoak

Ibarra, 10 · 7. Pab · 48300 Gernika · Bizkaia

☎ 94 625 54 50 · Fax 94 625 54 00



Helduen literatura

Ez naiz ni
Karmele Jaio
Elkar, 2012

Ander, platanoa...

KARMELE JAIOK bere hirugarren ipuin bilduman argazkia atera dio inguruko errealitateari. Argazki horren erdian, hiri horretako kaleen artean, umeen parkea dago eta bertan ama bat banku batean eserita bere semeari merienda jan dezan deika. Bitartean bere bizitzari errebasoa eman dio eta ez zaio gustatu ikusi duena. Bizitzaren erdialdera heldu da eta bere bizi proiektu pertsonala zena, koadroak zaharbertzea eta margotzea, familia osatzeko baztertu zuen eta une horretan blokeatuta sentitzen da. Zahartzen hasi da eta bere ametsak zirenak alde batera utzi zituen aspaldi markatutako bideari lotzeko. Gizon batekin elkartu eta seme-alabak izan. Pertsona normala izan. Erdigunean kokatu. Baina orain krisian dago betebetean. Ez du bere burua ezagutzen eta bere gorputza egunerokotasunak lokartuta dauka. Esandakoaren erakusgarri *Ekografiak* ipuinean irakurri dezakegu: “Ia-ia ahaztuta nuen nor nintzen ni neu. Nor ginen eta nor izan ginen”.

Hori da *Ez naiz ni* ipuinean eta liburuan kontatzen zaiguna. XXI. mendeko ama berriaren ereduaren krisia. *Gasteiz-Ibiza-Benidorm* narrazioan horrela adierazten dute ideia hau: “Zailena ez da zahartzea... zailena zahartzen hastea da”. Pertsonaia gehienak 40 urte inguruko amak dira. Denak heterosexualak eta barruko min eta ezinegona sentitzen dutenak. Betty Friedanen *The Feminine Mystique* (1963) datorkigu burura: liburu honetako tesia emazte eta ama izaerak asetzen ez dituzten emakume zuri, erdi klaseko, heterosexual, hezituek zoriontasuna erdiesteko eremu publikoan jardun osoko lana aurkitu behar dutela eta sorkuntza landu behar dutela da. Jaioren ipuinetan ordea, ama hauek euren gaztaroari begiratzen diote haien burua

eta gorputza berreskuratu nahian, beraien bikotekideekin edo bakarrik haien bizitza berbideratzeko eta bizipoza berriro sentitzeko xedearekin.

Gaur egungo amek amatasuna bizitzeko modu desberdinak ekartzen dizkigu liburu honek, bere argi-ilunak erakutsiz, argazki desberdinetan. *Arrosaren arantzak* ipuinean adibidez hurrengo iruzkina dugu: “zaila egiten zaio Bakarnerekin jarraian hitz egitea. Ez da gelditu une batez ere. Zatika hitz egiten dute, semearen atzetik ibili baita une oro”. Argazkilari honen begirada kritikoa da, eta tarteka, orain arteko lanetan ez bezala, umore puntu batekoa. Asko gustatu zait Jaioren prosan agertu den elementu berri hau eta alde hori lantzen jarraitzea gustatuko litzaidake.

Zentzumenak ere asko erabili ditu ateratako argazkiak osatzeko: *Patitiek datozen usainak* narrazioan klase ertaineko protagonistak bere jatorri apala atzean utzi nahi du tortilla usainarekin batera; *Txupa beltza*-n protagonista gaztetako arropa horrek duen hauts eta ganbara usainak gaixo jartzen du eta balkoian aireztatzen uzten du; eta *Aterkia*-n euriak bustitako arroparen hezetan usainak klase sozialen arteko amildegiairen muga marrazten digu.

Lortuko dute pertsonaia hauek bilatzen ari diren zoriontasuna? Zahartzen hasi direla onartuko dute bizi-egoera honi ahalik eta atarramendu handiena ateraz? *Ez naiz ni* amaren semeak, Anderrek, platanoa osorik jango du eta bere amak bere identitate pertsonala berreskuratzea lortuko du? Erantzunak ipuin bilduma honetan topatuko dituzue. ■



Amaia Alvarez Uria



1 irakurri



2 hautatu



3 erabili



4 lagunei bidali



Txistu Symphonic
Garikoitz Mendizabal &
The Bratislava Symphony Orchestra
Hautsi records, 2012

Tradizioaren ikuspegi berri bat, txistuz

2005ean egin nuen topo Garikoitz Mendizabalekin, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoan *Maite zaitut* diskoaren grabazioan. Andoaingo Garate estudioan sartu nintzen unean, zestoarra *Txorroskileroa* kantaren melodia ari zen grabatzen, eta aitortu behar dut bere abileziak txundituta utzi ninduela. Ez nuen uste hiru zulo besterik ez dituen instrumentuari horrelako zuku ateratzea posible zenik. Grabazio hartan bere gaitasunaren lekuko izateko aukera izan nuen, eta orain, 8 urte geroago, The Bratislava Symphony Orkestrarekin batera grabatutako diskoa entzutean, musikarekiko bere maisutasunaz jabetzeko aukera izan dut.

Txistulari zestoarrak lortu ezina zirudien ametsa bete du. Bi urte luze iraun duen proiektu honekin, zailtasunak ilusioz eta ausardiaz gaudituz, orkestra sinfoniko batekin jotzearen erronkari egin dio aurre. Txalotzekoa da egindako ahalegina, baita lortutako emaitza ere, lan dotorea aurkeztu baitigu benetan. Garikoitz Mendizabalen interpretazioak gorenera eraman du txistua, egunorokotasunean erraz aurkitzen dugun instrumentu horretarako trebetasun nabarmena erakutsiz. Txistulariaren talentua orkestrako gainontzeko musikariarekin pareka daiteke, eta argi geratu da, solista izateko haina meritu baduela.

Txistu symphonic diskoan txistu errepertorio ohikoan dauden Solozabal, Guridi, Bastida, Olaizola eta Ansorena maisuen lanak bildu dira. Mendizabalen helburu nagusia, etorkizunean bertako eta atzerriko orkestrek joko dituzten piezak biltzea izan da.

Grabazioan, musika estilo ugari entzun ditzazkegu, besteak beste dantzak, doinu eta bariazioak edo euskal kantutegiko pieza ederrak. Jatorrizko doinu aberatsek aparteko ukitua jaso dute txistulariaren interpretazioari eta orkestraren sonoritate ikusgarriari esker. Abesti gehienak ezagunak izan arren, lehenengo aldiz entzungo dituenaren arreta mailari berari eusten zaio. Erne mantentzen zaitu hasierako konpasetik azken notaraino eta ustekabeen harripatuko zaituen giroaren zain egongo zara.

Garikoitz Mendizabalek aurkezten dizkigun



hamaika abestien artean badira Xabier Zabala zarautzarrak egindako bi: *Ondoan* eta *Irribarrea*. Melodia zoragarri hauek emozioak azaleratzeko indarra dute, eta filmetako soinu banden antzera, arreta erakartzeko bertutea.

Orkestra zuzendariaren lana ere goraiatzekoa da. München bizi den Enrique Ugarte tolosarrak bere profesionaltasuna erakutsi du, eta adorez bete du bere zuzendari rola. Aipatzekoa da halaber, Mikel F.Krutzaga soinu teknikariaren zeregina, neurri handi batean, grabazio eta nahasketa lanek azken emaitza borobiltzen lagundu dutelako.

Gertuko musikaria dugu txistularia. Edozein ospakizun dela eta, hortxe izango dugu dantza taldeari erritmoa jartzen, buruhandi eta erraldoiekin kalejiran, igande goizeko dianan edota ekitaldi korporatibo baten irekieran. Ezagun daeuskaldunon artean bizirik dirauen instrumenturik zaharrenetakoak Euskal Herriko bazterrek pizten jarraitzen duela.

Tradizioaren haritik, txistuaren bilakaeran bide berriak arakatuz doa Garikoitz Mendizabal. Disko honekin, ezaguna denari beste ikuspegi batetik begiratzeko gonbitea luzatu digu. ■

Olatz Korta





Aresti eszenatokian, Oskorriren eskutik

GABRIEL ARESTIRI eskainitako ikuskizun zaharberritua aurkeztu zuen Oskorri musika taldeak otsailaren 22an Tolosan. Lehen emanaldia izan zen, Udalak antolatuta eta Kilometroak 13ren babespean egina (nabaritu zen sarrera salmentan), egun batzuk lehenago Donostiako Victoria Eugenia clubean gonbidatuentzako saio berezia egin bazuten ere.

Musika taldea izan beharrean, antzerki taldea ikustera joan al ginen galdetu zidan ondoko lagunak, taldekideak eszenaratzen ikusi zituenen. Izan ere, eszenografiak eta partaideen sarrerak gehiago zuen antzerkitik musikatik baino. Gabardinez, kapelaz, berokiz eta aterkiz hornituta, banaka sartu ziren Leidor antzokian. Argiek ere giro intimista lortzen laguntzen zuten. Kontzertuan zehar kareta, belarriak eta bestelako elementu batzuk ere erabili zituzten musikariek.

Gabriel Aresti biszitan izena jarri diote ikuskizun berriari eta poeta bilbotarra bertan izan zela esan daiteke, behin eta berriz aipatu baitzuen Natxo de Felipek bere aurke-

penetan. Oskorriren eta letren egilearen arteko harremana estua izan zela argi gelditu zen. Ez dugu ahaztu behar bere lehen diskoa Arestiri eskaini ziola taldeak, jadanik oso urruti gelditzen den 1975ean. Izan ziren tartean Arestirenak ez ziren kantak, baina nolabaiteko erlazioa zutenak idazlearekin.

Errepertorio zaharra, aski ezaguna aurkeztu zuten, baina moldaketa berriekin. Lan bikaina egin arren, zaila da entzulea harritzea askotan kantatu dituen doinuekin. Emanaldiaren erritmo lasaia *Bizkaiko aberatsak*, *Astoarena*, *Guretzat*, *Oskorri*, *Aita semeak*, *Sautrela* eta *Gora ta gora beti* abesti ezagunenekin bizkortu zen, ikusentzuleen inplikazioa ere bereganatuz horrelakoetan. Azkenean, propina pareta ere oparitu zioten entzulegoari: *Forjarien kanta* eta *Egia da*. Denboraldi luzean Pub ibiltaria ikuskizunarekin aritu ondoren, betiko doinuegara itzuli da taldea. Abisatu zidan kontzertura joan ez zen beste lagun batek, ETB ematen ari den “Eskerrik asko, Petrov!” dokumentaleko saio batera al nindotan esan zidanean.

Tonu intimista eman nahi izan diote ikuskizun berri honi eta boskotea agertu zen Leidorreko taula gainean, azkenaldian ohikoak ziren perkusioa eta baxu elektrikoak alde batera utziaz. Kantari nagusia eta gaien aurkezlea Natxo de Felipe da, beti bezala, kanta bakoitza mimosoz prestatuz eta luze azalduz. Gitarra eta perkusioa ere tarteka erabiltzen ditu. Beste beteranoa, Anton Latxa, du laguntzaile gitarra eta ahotsean. Bixente Martinez gitarra elektriko eta mandolinarekin aritu zen. Etxean jokatzen zuen Xabier Zeberriok biolina eta nickelparpa eskandinaviarra erabili zituen herrikideen aurrean, tarteka ahotsetan ere lagunduz. Azkenik, Josu Salbide haizezko tresnak astindu zituen: txirula, gaita, alboka, txistua... Musikari ezin hobeak, dudarik gabe, akatsik gabeko interpretazioa burutu zutenak, nahiz eta agian berotasun pittin bat faltan bota haien jarreran. Estreinaldien kontua izango da, hartuko dute martxa. ■

Joxemi Saizar



Gernu-infekzioa, ikasi saihesten

ZISTITISA maskuriko inflamazio edo hantura da. Gai-xotasun hori ohikoa da emakumeengan; estatistikek diote emakume guztiek izaten dituztela infekzio horiek behin edo behin bere bizitzan. Lautik bat urtean hiru zistitis edo gehiago jasatera irits daitezke. Gizonek ere jasan dezakete maskuriko infekzioa.

Behin eta berriz errepikatzen diren zistitisei errekurrente esaten zaie, eta arrazoiak askotarikoak izan daitezke: joera genetikoa, umetoki barruko gailua bezalako antisorgailuak erabiltzea, hesteetako asaldak –beherakoak, esaterako–, menopausia –estrogenoen jaitsierak baginako flora normala aldatzen duelako–, baita harreman sexualak edukitzea ere: penetrazioan uretrak masaje moduko bat hartzen duenez, kanpotik germenak sartzea asko errazten da.

Mikroorganismoek gernu-traktua inbaditzen dutenean gertatzen da batez ere zistitisa, eta infekzioak uretrari, maskuriari, giltzurrunei eta prostatari erasan diezaieke. Hura sorrarazteko gai diren germenak asko diren arren, *Escherichia coli* baziloa da denetan usuena. Normalean hestean bizi den bazilo hori uretran barrena iristen da, eta emakumeen uretra gizonezkoena baino laburragoa denez, infekzioa errazago zabaltzen da gorputz barruan.

Babes ohiturak

Zistitisa diagnostikatu bezain laster, medikuek antibiotikoak erreze-



THINKSTOCK PHOTOS

Zistitisa prebenitzeko hiru neurri egoki: ez erabili perfume gehiegi daukaten kremak, ur asko edan, eta ez erabili galtza estuegirik.

tatzen dituzte, infekzioak giltzurrunari erasan ez diezaion. Tratamendua medikuaren ardura denez, ez gara hemen alderdi hori jorratzen hasiko. Esan behar da, hala ere, zenbait kasutan zistitisa tratamendu konbentzionalekiko erresistenteak izaten direla, eta konplikatzera irits daitezkeela. Horregatik espezialista izango da, beti, tratamendu egokia aginduko duena, beharrezkotzat jotzen dituen azterketa klinikoak eta proba diagnostikoak egin ondoren.

Dena den, horrelako zistitisa behin eta berriz errepika ez daitezken, badira neurri eta ohitura sinple batzuk.

Bainu-gelan

Saihestu tanpoiak eta perfume gehiegi daramaten gel eta kremak. Sexu harremanen aurretik eta ondoren maskuria hustu eta alde genitala ondo-ondo garbitzea komeni da, eta libratu ostean garbiketa beti aurretik atzerantz gitea.



WWW.USETING.ORG



WWW.GOLFINO.COM

Mahaian

Egunero ahabi gorrien zukuak, pepino eta espinaken zukuak, edo erre-fau-hostoen zukuak edateak zistitisari aurre hartzen laguntzen du. Horrez gain, gurbitz edo garangorritz egindako infusioak eta otorduei perrexila eranstea baliagarria izaten da. Eta, noski, aditu guztiek ur ugari edatea gomendatzen dute.

Armairuan

Ahal dela ez erabili galtza estuegirik, eta barruko arropa kotoizkoa izan dadila, sintetikoak beharrezkoak. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Txist eta krak

HEGO AMERIKATIK dator berria: hemen dugu, bada, arantzarik gabeko laharra (*Rubus fruticosus*). Ekuadorreko nekazaritza ikerketarako INIAP institutuak arantzarik sortzen ez duen laharra aurkeztu berri du, Andimora 2013 izena duen aldaera.

Laharra gogora ekartzen dudano Aiako Etxeta baserriko seme Inaxioz oroitzen naiz. Hark irakatsi zidan ezagutzen dudan laharren istorio politena. Lehen ere noizbait txoko honetara ekarria dudala uste dut: “Nor edo norekin ezkondu egin nahi zuen laharrak, baina beste landareek utzi ez ziotenez hark betirako ohoregabeko zuen mehatxua bota zuen: aldamenen dudan guztiari helduko diot”. Eta landare guztiek egiten duten bezala, erabakitako

mehatxua bete. Horretarako paregabeko diseinuzko arantza sortu zuen. Beste landareei heldu eta gaina hartzeko arma, tamaina egokiko makurdura duena, ia edozein larruazal txist zulatu eta sartu ondoren askatzeko asmotan mugitzen den azal horretan krask hautsi eta sartuta geldituko dena. Eskarda txatxuenaren antzera, azaletik atera ezean, gerora min zorrotza sortu, baita zornea eta pasmoa ere eta deskuidatuz gero tetanos gaitz beldurgarriaren amesgaiztoa biziaraziko duena.

Mehatxua burutzeko arantzak, bai, landare maltzurren koadrilako bihurtu du jendearentzat, lahar-diari sasi deitzera. Ez baitiugu sekula barkatuko. Arantzarekin batera gure ekosistemako fruiturik estimatuenetako bat sortu zuen,

masusta. Eskuetako azala lahar-arantzaz zulatu gabea nork du? Masustetan inoiz ibili gabeak. Uda amaieran sasitzaren batean lahar-rari kendu ahala masusta jan ez duenak zer bizi ikaragarri du oraindik. Ikaragarri!

Ongi heldutako masusta helduberriak sasidian bertan jateari arantzadiak eransten dion beldur-puntu hori kenduta masusta bixiena ere makala irudituko zaigu... Arantzarik sortu beharrik gabe, horretarako energia fruituak haztera bideratzen du, Ekuadorren sortua duten aldaera berri horrek: hektareako 20-24 tona masusta emateko gai omen da. Horiek ere makal askoak izango dira. Otzandu dute laharra. ■



JAKOBA ERREKONDO

Bueltan-bueltan

GERO ETA GEHIAGO dira bueltan-bueltan datozen garai bateko langintzak. Nekazaritzak inolako etorkizunik badu, lehenari begiratu beste aukerarik ez du. Ez lehen bezala bizitzeko, astolanean, lehengo bizitzaren ikuskeraren berreskuratzeko baizik. Bertakoaren kalitatea, alegia.

Ez dugu abere-gurdira bueltatu beharrik, ezta eguneroko jatenetarako lan nekosora ere. Egungotik orduko-ara tarte handia dago eta hor dugu aukera. Gaur egun esnetarako behiak elikatzeke kanpotik ekarritako jakiak

erabiltzen dira, gehienbat. Beste herrialdeetatik, beste kontinenteetatik ekarritako belar eta aleak jaten dituzte. Bertako lurrarekin, bertako bazkarekin, bertako paisiarekin, bertako kulturarekin, hau da, kalitatea eransten duen guztiarekin inolako loturarik gabe. Uztartze hori berreskuratzen ez dugun artean ez dugu zereginik. Zure esku dago: eskatu bertakoarekin sortutako bertako mozkinak, eta ahal bada ekologikoak. Denon osasunaren mesedetan. ■

Legalki hiltzeko manierak Erdi Aroko Nafarroan

JOHN CARTER BROWN LIBRARY



Nafarroan, Behe Erdi Aroan, heriotza zigorra ezartzeko biderik ohikoena urkamendia zen. Baina agirik askotariko metodoak jasotzen dituzte, eta urkatzeak berak hainbat "gehigarri" izan ohi zituen.

LIZARRA (NAFARROA), 1310. Ordenantza baten bidez "hiltzen duena, hil dadila" legea ezarri zuten. Hogei urte geroago, Tuterako ordenantza batek ondorio berbera izan zuen. Behe Erdi Aroan, Nafarroan, urteko 27 exekuzio izan ohi ziren batez beste. Marka guztiak 1347an hautsi zituzten, 100.000 biztanle inguruko erresuman 87 pertsona heriotzara kondenatu eta hil baitzituzten.

Zigorra betetzeko biderik ohikoena (%71) urkamendia zen. %15 ito egiten zituzten, %4 amildegian edo kanpandorrean behera botatzen zituzten, eta beste hainbeste sutan erretzen. Baina baziren hain "zibilizatuak" ez ziren metodoak ere: 1333an emakume bat bizirik ehortzi zuten; 1361ean txanponak faltsutzeagatik pertz handi batean egosita hil zuten gizonezko bat... Biderik krudelena foruetan jasotako "larrutzea" zen: "Lepondotik ipurtezurre-ra lau hazbeteko azal lerroa kenduko zaie, eta gero, hanketatik orpoetaraino, lerroa bitan banatuko da". Agirietan metodo hori behin bakarrik aplikatu zela ageri da; emakume bati egokitu zitzaion eta bizirik zela egin zioten triskantzeta.

Urkatzeak ekitaldi publikoak ziren. Azoka egunetan izan ohi ziren, eta kondenatuak turuta hotsak eta zaldizkoen segizioa izan ohi zituen lagun urkamendira bidean. Batzuetan, geldialdiak egiten zituzten: Mattin Ezkila lapurrari eskua moztu zioten biktimaren ate parean, 1366an. Besteetan, zigor gehigarriak

urkamendian bertan jasotzen zituzten, kondenatuak errukia eskatu bitartean: jipoitu egiten zituzten, belarriak mozten zizkieten... 1435. urtean, Jacques Licrasek ez zuen errukia edo barkamena eskatzeko aukerarik izan, mihia kendu baitzioten. Amiltzeak ere publikoak ziren eta, harrigarria bada ere, 1336an iruindarrek ikuskizun bikoitza izan zuten: Galea dorretik bota arren lapurra bizirik irten zen, eta atzera goraino igo zuten, berriro botatzeko.

Finean, herritarrentzat irakaspen izan behar zuten exekuzioek. Horregatik kondenatuak torturapean hilez gero, agintariak B plana jartzen zuten abian: gorpuak edo buruak elkargune eta bidegurutze nagusietan ipintzen zituzten ikusgai, heriotza zigorraren helburu "hezitzailea" gal ez zedin. Eta herritarrek beste zerbait ere ikasten zuten zigor horiei esker: judua edo musulmana izatea baino askoz hobea zen kristau izatea, emakumea baino hobea gizon izatea, nekazaria baino hobea noble izatea. Bortxaketak delitugileak nekazariak eta biktimak nobleak zirenean soilik zigortzen zituzten heriotzaz. Adulterioa isun txiki batez konpondu ohi zen, baina gizonezkoa musulmana edo judua bazen biziarekin ordaindu behar zuen (baita emakumeek ere, kristauak izan arren). Eta juduak buruz behera urkatu ohi zituzten, hil baino lehen damutzeko ordu edo egun batzuk izan zitzaizten. ■




Arrastoak

Post-it: lehengai kaxkarra asmakizun bikain bihurtua

ART FRY izeneko 3M enpresako kimikariak asmatu zuen post-ita 1970eko hamarkadaren amaieran. Elizako abesbatzan aritzen zen Fry, eta kantu liburuko bereizgailua galtzeaz nazkatuta, liburuetakako orrialdeak markatzeko eta oharrak eransteko produktu bat asmatzea erabaki zuen. Bereizgailuak lerro itsaskorra eduki behar zuen, baina askatzean liburuaren orriak hondatuko ez zituen. 1968an Spencer Silver lankideak "itsasteko ahalmen eskaseko" itsasgarri akrilikoak sortu zuela gogoratu zen. Lankidearen produktuan akatsa zena oso erabilgarria izan zen Art Fryren asmakizunerako.

Urte erdiz kimikariaren ideia garatu ondoren, produktuen behin betiko diseinua 3Mko bulegoetan probatu zuten, eta langileen %90en oniritzia jasota merkaturatu zuten. ■



NEVIT DILMEN

Hodei toxikoa: urtebete erantzukizunak argitu barik

2012ko martxoaren 25ean egin zen beheko argazkiko manifestazioa, Abantoko Udaleko Las Carreras auzoaren eta Petronor findegiko ate nagusiaren artean. Ia hamabost egunez Las Carreras eta Muskizko herritarrek jasan behar izan zuten hodei toxikoak eragin zuen mobilizazioa. Aire garbia arnasteko eskubidea aldarrikatu zuten orduko pankartan, baina ez hori bakarrik; gaur, oraindik, gertakari hari buruzko azalpen askoren zain jarraitzen dute.

| UNAI BREA |



MEATZALDEA BIZIRIK

IAZKO MARTXOAREN 2AN, Muskizko eta, batez ere, Abantoko Las Carreras auzoko biztanle asko buruko mina, zorabioa eta bestelako sintoma batzuk eragiten zizkien gas usainaz kezkatzen hasi ziren, euren udaletxetara edo SOS Deiak zerbitzura deituta. Kexa haiek etengabeak izan ziren martxoaren 15era arte. Hasiera

batean, gertakariaren berri eman genuen hedabideok Petronorren webgunean aurkitutako informazio bat aipatu genuen, gas emisio haien zergatia azaldu nahian: koke plantako gas konpresore batean proba batzuk egiten ari ziren, eta enpresak abisua eman zuen horrek lurrin isurketa handitzea eragin zezakeela.

Haatik, koke plantako probek ez zeukaten zerikusirik. Ekainaren 12ko datarekin EAEko Ingurumen Sailak egindako txosten batek dio, Petronorrek berak emandako informazioan oinarrituta, gas ihesaren jatorria findegia 1 unitatean gertatutako matxura bat izan zela. Bero trukagailuetan, zehatzago esateko.



Petronor, Abantoko Las Carreras auzotik ikusita.

AXIER LOPEZ

Findegian dauden hamasei bero trukagailuetatik lau guztiz ordezkatu behar izan zituzten, eta beste bi konpondu, zulatuta zeuden eta. Bero trukagailuak hodi bikoitzak dira, kanpo aldean nafta dutenak, eta barruko aldean, berriz, ura kasu batzuetan eta petrolio gordina beste batzuetan. Ingurumen Saileko txostenaren arabera, urarekin nahasitako nafta izan zen atmosferara jaurti zena, baina ez da hain argi geratzen ihesaren zergatia matxura bera izan zen, edo matxura konpondu ahal izateko Petronorrek aurrez egin zituen prestaketak. Edozelan, prestaketa horiek martxoaren 8an hasi zituela dio Petronorrek. Helburua zen martxoaren 20an findegiaren aktibitatea gelditu eta konponketa egitea. Datek garrantzia dute, ikusiko dugunez.

Petronor, arreta desbideratzen

Muskizko Turruntero eta Meatzaldea Bizirik elkarteetako zenbait kideekin bildu gara –izenak ez aipatzeko eskatu digute–, eta adierazi digute euren ustez Petronorrek ez zuela garbi jokatu gertakari honi dagokionez. Eusko Jaurlaritzak egindako beste txosten batean oinarritzen dira hori esateko; kasu honetan, Bizkaiko Osasun Publikoko Zuzendaritzaordeak izenpetua.

Turrunteroko kide batek azpimarratu digunez, txosten horren arabera Osasun Publikoko Zuzendaritzaordeak martxoaren 11n hartu zituen lehen neurriak aferarekiko, SOS Deiak kexa oldea jasotzen hasi eta

bederatzi egunera. Atzerapen hori baino larriagoa da, agian, ondoren gertatutakoa: martxoaren 11n bertan, Ingurumen Sailak larrialdiak kudeatzeko kontratatuta daukan enpresako teknikari bat Petronorrera joan zen. Enpresak jakinarazi zion findegiaren 2 unitatea geldirik zutela une hartan, eta garrantzi gutxiko obra batzuk egiten ari zirela, baina besterik ez. Teknikariak horixe bera esan zion Osasun Publikoko arduradunari, eta gertakaria amaitutzat jo zuten. Gauza bera gertatu zen handik bi egunera, martxoaren 13an.

Txosten biak erkatzean ikusten da, Turrunterok ohartarazten duenez, Petronorrek informazioa ezkutatatu zuela. Alde batetik, martxoaren 11n Ingurumen Sailak bidalitako teknikaria lehen aldiz joan zitzaizenean, bazekitelako –martxoaren 8tik gutxienez– matxura bat zeukatela. Bestetik, teknikariaren arreta 2. unitatera desbideratu zutelako, matxura 1. unitatean egon arren.

Osasun Publikoko Zuzendaritzaordearentzat ere baditu kritikak Turrunterok. Lehenik eta behin, gertakariak iraun zuen hamahiru eguntan ordezkariarik ez bidaltzeagatik ez Muskiz ez Las Carrerasera, eta bestetik, bizilagunen kexa oldeari garrantzia kentzeagatik. Izan ere, elkarteko kideek salatzen dute inplikaturak egon diren EAEko sail guztiek gertakariak benetan izan zuten larritasuna ezkutatzen saiatu direla, eta kexu dira, besteak beste, Petronor inolako zigorrik jaso gabe onik atera delako.

Neurketak, hamabi egun berandu

Orain arte aipatu ez dugun datu garrantzitsua: bizilagunak inguruan zuten hodeiaz kexatu ziren hamabost egunez, baina benetan zer arnasten ari ziren ez zen martxoaren 14ra arte neurtzen hasi. Hau da, SOS Deiak eta udalak salaketak jasotzen hasi eta hamabi egunera. Inguruan dauden aire kalitatea neurtzeko estazioek zenbait datu esanguratsu emateari utzi zioten-gertakaria hasi baino hilabete batzuk lehenago; horregatik ez dago zehatz jakiterik zer egon zen airean martxoaren 2tik 13ra. Ingurumen Sailak, azkenik, konposatu organiko hegazkorak (KOH) neurtzeko unitate mugikorra bidali zuen Las Carrerasera, hilaren 14an. Hor hasi ziren lehen datuak eskuratzen, baina horien erabilpena makurra izan zela uste dute Turruntero eta Meatzaldea Bizirik elkarteek.

Dagoeneko aipatu dugun Ingurumen Saileko txostenean irakur daitekeenez, martxoaren 14an eta 15ean egindako neurketan 170 inguru KOH atzeman ziren, “hiringuneetan ohikoak direnak baino kontzentrazio nabarmenki handiagoetan”. Substantzia haien jatorria ia seguru Petronor zela ondorioztatu zitekeen –susmoa geroago baieztatu zuten, ikusi dugunez–, eta ondorioz Ingurumen sailak findegiko arduradunegi agindu zieten neurriak hartzeko. Petronorrek bere 1. findegia gelditu zuen, bero trukagailuetan matxura zuena ale-



gia, eta KOHen baloreak normaltasunera itzuli ziren.

170 konposatu

Itzul gaitezen berriz Osasun Publikoko Zuzendaritzaordearen txostenera. Hari kasu egitera, denbora tarte batean bentzeno kontzentrazio handi samarrak izan ziren airean, baina ezin esan gertatutakoa larri-larria izan zenik. Bizilagunak ez datoz bat, neurtutako datuen interpretazioa gaizki egin dela uste baitute. Gertatutakoari garrantzia kentzeko, hain zuzen.

Bentzenoa besterik aipatu ez izanak badu bere zergatia: detektatu ziren substantzia guztietan, hura da legearen arabera gehieneko balore bat daukan bakarra. Hortaz, gainerako substantzien baloraziorik ez du egin administrazioak, horietako batzuk kaltegarriak direla dioen dokumentazio ugari existitu arren. Eta bentzenoari dagokionez, araututa dagoen balio bakarra urteroko

batez bestekoa da. Ez dago araurik denbora laburrean gertatzen diren esposizio larrietarako. Azkenik, Osasun Publikoko arduradunek nazioartean erabili ohi diren zenbait erreferentziatara jo zuten, eta MRL izeneko aukeratu zuten konparazioa egiteko: eguneko 29 mikrogramo metro kuboko.

Gero, neurtutako datuak multzo bitan banatu zituzten: martxoaren 14ko arratsaldetik 15eko eguerdira artekoaren batez bestekoa, eta 15ekoarena. 31 mikrogramo lehenak, 34 bigarrenak. MRLren gainetik biak, baina ez, Osasun Publikoaren aburuz, kezkarri izateraino.

Turrunterok eta Meatzaldea Bizirik-ek uste dute administrazioak tranpa egin duela batez bestekook kalkulatzeko. Kontuan hartu behar da kontzentrazio altuenak neurtzen ari ziren uneetan, balioak aipatutakoa baino askoz handiagoak zirela: atzemandako altuena 127 mikrogra-

mokoa izan zen. Handik lau ordura, bost mikrogramo ingurura jaitsita zegoen. Arazoa da balio handienak neurtzen ari ziren hartan, hainbat orduz, unitate mugikorrek neurtze-ri utzi ziola. Arazo teknikoengatik, Osasun Sailaren arabera. Arartekoak erresoluzioa eman zuen gaiari buruz joan den irailean, eta nabarmendu zuen zenbait ordutako datuen falta, jakinda emisio handieneko orduak zirela. Turrunteroren kexa da hain modu irregularrean kalkulaturako batez bestekoan oinarritu zela Jaur-larritza gertakariari garrantzia kentzeko. Aipatutako irregulartasun guztien erantzulerik ez da izendatu eta Petronorri inongo zigorrik ez zaio ezarri, salatzen dutenez, eta gogor-razi dute gertakariari buruz administrazioari egin dizkieten zenbait galderaren erantzunaren zain daudela oraindik, urtebete igaro eta gero. ■



Foie plantxan

Bartolo

taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

doku sarea

Hilero dokumental bat proiektatuko da Euskal Herriko taberna, gaztetxe, kultur etxe eta euskaltegietan, guztiak euskaraz edo euskarazko azpidatziekin.

Anima zaitetz
zure herrian
antolatzera!

HILABETE HONETAN



ATZERAPAUZO HANDIA

Neoliberalismo hogeita hamar urte pasa ondoren zer dugu frantziar eredu sozialaz?

Eraikin errepublikanoen aitzinaldean idatzitako "Askatasuna, Berdintasuna, Elkartasuna" hitzek esanahirik ba al dute orain?

Merkatuen pribatizazio grinak bai eta haren indar suntsitzaileak ase ezinak dira. Soziologo, kazetari, aktibista, paperik gabeko, ijito eta errefuxiatu politikoez publikotasuna asaldatzeko era hau deskribatzen dute.

- > Johanna Lévy, Yann Manuguerra, Philippe Fréchou, Tristan Goasguen
- > 70min
- > 2011

HARREMANETARAKO



EGUZKI BIDEOAK

948 211 537 / 608 928 631

dokusarea@eguzkibideoak.info

www.eguzkibideoak.info

Beppe Grilloren ezustekoa, mesfidantzak eta aukerak

Sorpresa izan da Italiako azken hauteskundeetan: Beppe Grillo umoregilearen Bost Izarren Mugimenduak (M5S) botoen %25,55 eskuratu du diputatuen ganberan eta herrialdeko politika baldintzatzeko aukera dauka. Emaitzak Europako finantza-mundua urduritu du, baina ezkerretik ere kritikak jaso ditu.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

“HAUTESKUNDE HAUETAN zerbait garbi egotekotan, honakoa da: Beppe Grillok irabazi du. Eta irabazlea bera izan dela esatea eufemismoa da. Hautestontziek altxamendu masiboa adierazi dute eliteen kontra. Lau boto-emaitetik batek gutxienez eman dio bozka umoregile bizardunaren zerrendari, askotan sondeo-institutuetan iragartzeko begiramenik eduki gabe, horiek ere elitearen parte direla ulertuta”. Italiako *La Stampa* egunkarian Massimo Gramellini argitaratutako artikulua zalantza gutxirako tartea utzi zuen: egoera kontrolpean nahi duten elite europarrei beste problema bat sortu zaie Europa hegoaldean.

Fiat enpresaren egunkariko kazetariak ez du uste zigor-botoa bakarrik izan denik: “Esperantza desesperatua dago Bost Izarren Mugimenduko parlamentarioak diferentek izango direla, ez dituztela patrikak beteko, baina batez ere, entzun egingo dutela, besteek jada ez baitzuten egiten”. Antipolitiko etiketa jarri diote han eta hemen. *The Economist*ek titular batetik “pailazo” oihukatu dio. Oro har, finantza munduak begiak ezkeldu ditu Grilloren emaitzarekin. Baina ezkerretik ere agertu dira ahots kritikoak mugimenduarekin. Wu Ming idazle kolektiboak Internazionale.it webgunean zera argitaratu du: “Itxura eta erretorika iraultzailea gorabehera, uste dugu azken urteetan dagoenaren defendatzaile eraginkorra izan dela M5S. ‘Tapoi’ gisa funtzionatu duen indarra, sistema orekatzeko”.



RETRO ONLINE

Wu Ming kolektiboaren ustez Beppe Grillok “tapoi” gisa funtzionatu du.

Italian ez da egon Mediterraneo beste estatu batzuetan bezalako mugimendu herritar indartsurik Wu Mingen ustez, eta horrek bidea erraztu die Beppe Grillo eta Gianroberto Casaleggio enpresarioari Bost Izarren Mugimendua antolatzeko. “Erpin batetik hertsiki kontrolatu eta gidatutako ‘mugimendua’ da, herri mugimenduen aldarrikapenak jaso eta emulatzen dituena, kapitalismo ‘sanoaren’ aldeko apologiekin nahastuz, baita politikari/administratzaile indibidualaren honestitateari buruzko azaleko diskurtsoekin ere. Programa nahasgarria daukate, non aldi berean dauden proposamen liberalak, antiliberalak, zentralistak, federalistak, libertarioak eta ezker muturrekoak”.

Dena den, Grilloren mugimendua bere buruaren preso ez bada, eraldaketarako tresna bihurtzeko aukera ez dute baztertu Wu Mingekoek. Iritzi horri heldu dio Franco Berardi “Bifo” teoriarari marxista-autonomistak ere. ElDiario.es ataritik hartu ditugu haren hitzok: “Grilloren alderdiak diktadura finantzarioaren gobernu galarazi du. Orain jendartea mugitzeko txanda da. Jendarteak izango al du energia eta inteligentzia aski, bizi-modu soziala auto-kudeatzeko okupazio orokorreko mugimenduarekin? Energia hori ez baldin badaukagu, datorren desastrea merezi dugu”. Italiar testuingurutik aterata ere, zer pentsatua ematen du. ■



Udalak eta herritarrek euskara plana adostuko dute

Murrizketak nagusi diren honetan, norbaitek pentsa lezake herri euskaldunetan euskara sustatzeko planek ez dutela tokirik. Markina-Xemeinen, aldiz, krisiari aurre egin eta herria aktibatzea adostu dute. Aste Santurako euskara sustatzeko plan berria osatuko du Udaleko Euskara Batzordeak, herritarren parte-hartzeari esker.

| MARIJO DEOGRACIAS |



ANTOLATZAILEEK UTZIA

Urtarrilean eta otsailean egindako bilera bietara 70 bat herritar bildu ziren.

MARKINA-XEMEINEN (Bizkaia) euskaraz egiten da, baina gaztelaniaz ere bai, asko. Horregatik, eta Udalak Euskara Sustatzeko Plana berri- tu beharra zuelako, euskararen inguruan herritarrek aktibatze- ko lanean hasi dira. Urtarrilean eta otsailean, alde- z aurretik planifikatu- ta, lan bilera bi egin dituzte eta 70

lagun inguru elkartu dira lanerako gogoz. “Herentzian jaso genuen euskara guk, baina oraintxe ohartu gara, era kontzientean, zein den gure herriak bizi duen egoera”. Naroa Escabias Garaian kultura elkarteko kidea da eta elkartean aspalditxo hartu zuten arren euska- raz funtzionatzeko erabakia, aitortu

duenez, sorpresa hartu du, txarrerako, ohartuta arlo askotan euskaldun- nek ez dutela normal antzean eus- karaz jarduten. Eneko Arrate ere bat dator horretan. “Guk naturalki jaso dugu euskara. Beti entzun izan dugu Lea-Artibaiko eskualdea ‘aldea’ bat dela, hemen salbu gaude- la, trankil egoteko. Baina, igarri egin

dugu transmisioa ez dagoela segurtatuta”, lanean jarri ezean. Gazte Asanbladako kide moduan hartu zuen parte berak bilera bietan.

Ados daude Udaletik aparte, herriak ere egin behar duela euskararen alde, bakoitzak bere elkarte edo taldean euskaraz jarduteaz gainera.

Herrian sortu nahi izan den jarrera proaktiboaren arrazoietako bat izan daiteke euskara elkarterik ez egotea. Izan bazen lehen EHE taldea, baina aspaldi utzi zion funtzionatzeari. Lasaitu-edo egin ziren herrian. Udaleko Euskara Batzordea bazez, eta indarrean zen Euskara Sustatzeko Plana ere. Aldiz, egoeraz ohartuta, eta “bi urteko geldialdiaren ostean, gobernu aldaketa egon zenez eta krisi ekonomikoaren eraginez diru gutxiago dagoenez, gauza batzuk birplanteatzen hastea pentsatu zen herrian”. Hala diosku Iratxe Lasak. Zortzi urtez herriko euskara teknikari izan da eta gaur egun Elhuyar Aholkularitzan ari da, eta bere herrian prozesua abiatzeko ardura hartu du. Proposatutako lan formulak kohesio soziala lantzeko aukera ematen du; gainera, “beste arlo askotan ez bezala, euskararen inguruan adostasun handia dago”, eta horrek ere laguntzen du berba egiteko. Izan ere, “Euskara Zerbitzua sortzeko eta hizkuntza politika zehazteko ardura izan behar du Udalak, baina noraino izan behar du Udalak eragile bakar?”. Irma Etxeberria da euskara zinegotzia. Berak ere uste du Euskara Batzordeak egitekoa betetzen badu ere, euskararen aldeko lana askoz ere dinamikoagoa izango dela herritarren parte-hartze zuzenarekin, eta badela garaia “denen artean erabakitzeke nondik nora jo nahi den”.

Deialdi arrakastatsuak

Oso pozik daude bi lan saioek izan duten erantzunarekin. Bi egunetan zehar hiru lan-mahai eta zortzi lantalde txiki egin zituzten, herrian euskararen egoera hobeto ezagutzeko. Hala, kulturagintza, kirola, gazteak, eskola, adinekoak, enpresa, merkataritza eta beste hainbat sek-

toretako herritarrak elkartu ziren. Guztiek balorean jarri dutena: parte-hartzaileen aniztasuna eta parte-hartze zabala.

“Jasotako inpresioak aldez aurretik ere bagenekizkien arren, orain herriko arlo bakoitzean egoera zehazki zein den dakigu, herritarren ahotik”, dio Etxeberriak, areago, “euskaldun sare bat aktibatzea nahi zen eta bakoitzak bere esparrutik, elkartetik, aktibatzea”. Bileretara Souleymane Sarr markinartutako senegaldarra ere joan da. Markina-Xemeingo senegaldarren Asema elkarteke kidea da bera eta “elkar-

“Guk euskara naturalki jaso dugu. Beti entzun izan dugu Lea-Artibaiko eskualdea ‘aldea’ bat dela, hemen salbu gaudela, trankil egoteko. Baina, igarri egin dugu transmisioa ez dagoela segurtatuta”

Eneko Arrate,
Gazte Asanblada

gune” modura definitu ditu lan bilerak. “Herrian egiten diren bestelako ekintzetan parte hartzen dugu, aukera dugunean; baina, gutako askorentzat euskararekin hartu-emana izateko era honetako dinamika oso egokiak dira”. Izan ere, etorkinen artean “ez da ikusten, hasieran behintzat, euskarak zer ekarpen egiten digun. Baina, behin hemen bizitzen jarrita, denborarekin, konturatzen zara herriaren parte izateko ere, euskara ezagutu eta jakin behar duzula”. Ikasten hasita dago Sarr, baina lan ordutegiak ez dira bateragarriak euskara eskolekin. “Gure proposamena izan da euskaraz aritzeko topalekuak gauzatzeko aukera”, kontatu digu.

Eurena izan da urtarrilaren 24an eta otsailaren 7an egin ziren lan saio bietan batutako proposamene-tako bat. Baina ez bakarra. Izan ere, gazteek parte hartu zuten lan taldean esaterako, 8 urteko gaztetxo bat ere aritu zen eta Eneko Arratek gogora ekarri duenez, “ikusten dituzten marrazki bizidun asko eta asko gaztelaniaz izaten direla esan

zigun eta eskolako atsedendietan, gaztelaniaz ere aritzen direla. Horrek erakusten du gure aldetik ere jarri behar dugula, emanda etorri zaigun hizkuntza gehiago erabil-tzeko”. Inplikazio hori bilatzea izan da prozesuaren motore eta “jendea gogoz dago parte hartzeko. Hori gazteon artean ere sumatu dugu, 25 urtetik beherako jende gutxi egon baginen ere, eta hor lanketa egin behar dugu”, azpimarratu du Arratek. “Txip aldaketa” egitea tokatzen zaiela iritzi diote markina-xemeindarrek; “komoditatea izan da gehienok euskararen aurrean izan dugun jarrera”, iritzi dio Arratek.

Krisiari elkarlanarekin aurre

Aurrekontu publikoetan murrizketak egiten dabiltzala jakitun, Markina-Xemeinen imajinazioa dantzan jarri nahi izan dute. “Dirurik ez dago, baina euskararen alde lan egiteko diru askorik ere ez da behar; ez behintzat jendea aktibatze-ko”, diote euskara zinegotziak eta Elhuyarreko kideak. “Elkar-lana indartzea da gakoa, krisiak eragindako murrizketei aurre egiteko, era horretan, diruak ez dezan baldintzatu euskararen sustapena”. Bada sarean asko zabaldu den berba bat, hona ere ekar genezakeena: coworking-a. Elkarlanean aritzeari eta dagoenari guztiok probetxu atera ahal izateari esaten zaio. Gurean auzolanak ohitura handia dauka eta, kasu honetan, esan daiteke horri eutsi nahi dietela Markina-Xemeinen.

Gauzak horrela, Udaleko Euskara Batzordeari tokatzen zaio orain lekukoa hartzea: herritarren artean egindako bileretan lan talde guztiek ateratako argazkiekin osatutako txostena baloratzea. Euskara Batzordean parte hartzen dute herrian ordezkariak duten hiru alderdiek eta herriko hainbat elkar-tek ere.

Dena ondo bidean, Aste Santurako aurreikusitako dute prozesua biribildu eta plana aurkeztea, beti ere, herritarrek egindako ekarpenak jasoz, eta aktibazio hori izanik motore. ■



Hizkuntza Politikan murrizketa gogorra ei dator

Txioka ARGIA aurrena

KOPURU OFIZIALIK ez da, ez dakigu Eusko Jaurlaritzak nolako aurrekontuak aurkeztuko dituen. Egunkariak ordea, brasta-brasta ari dira sailletako ehunekoak ematen. Bada-kiguna da Eusko Jaurlaritzak zein sail jo dituen lehentasunezko; alegia, Hezkuntza, Osasuna eta Enplegu eta Gizarte Politika.

Hezkuntza Saila zabalda da agintaldi honetan eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura biltzen ditu. Bada, batean eta bestean agertutako datuen arabera, Hezkuntzak %7ko jaitsiera izango luke, iaz baino 185 milioi euro gutxiago. Kolpe gogorra beste biek jasoko lukete,

Hizkuntza Politikak eta Kulturak. %22ko murrizketa egongo dela uste da, iaz baino 59 milioi euro gutxiago.

Alberto Barandiaranek, Hekimen herri ekimeneko euskarazko hedabideak biltzen dituen elkarte sortu berriko zuzendariak, ondokoa adierazi dio *Berriari*: “Marra gorrietan inoiz ez da euskalgintza aipatzen, eta guk behin eta gehiagotan esan dugu euskal hedabide asko marra gorrien azpitik daudela jadanik”. Jasone Mendizabal Topaguneko ordezkariak berriz, adierazi du ziurgabetasuna ikaragarria dela, eta kezka handia.

CODESYNTAX elkarteak garatutako Umap tresnak esan digu euskarazko Twitter erabiltzaileen rankingean lehen postua egin duela ARGIAK. Umapek euskaraz idatzitako txioak hautematen ditu, eta oraingoz, 3.180 erabiltzailek osatzen duten euskal komunitatearen jarduna segitzen du. Rankinga astero aldatuko da. Zerrendan aurrena da ARGIA eta ondokoa dira: berria.info, topatu.info, sus-tatu albisteak, ARGIAko kazetari Gorka Bereziartua, zuzeu eta Hamaika Telebista. Aldizkari hau argitaratzerako, dantzan dira gora eta behera txiolariak.

Bahea

Ekaitz Goikoetxeak *Berrian* esanak Arrue ikerketa hizpide hartuta:

“Baina guk, maisu-maistra eta irakasleok, zenbateraino laguntzen diegu ahozko adierazpenean trebatzen? Noiz, noiz hasiko dira orriak eta orriak edukiz betetzeko gai diren bolaluma haragituak buru-bihotzetan pilatutako sentimendu eta bizipenak ahotik husten?”

Eskerrak Bertsozale Elkarteraren ekimen txalogarriari esker Euskal Herriko gaztetxo asko eta asko astean ordu

betez behinik ahozkoasunarekin harremantzen hasi garen. Baina zer da astean ordu bete basamortuan galdutako malko lurrundua besterik? Zein dira astean zeharreko gainerako hogeita bederatzi orduetan ikasgelan lantzen diren gaitasunak? Bi minutu baino luzeagoko zenbat ahozko aurkezpen, elkarrizketa, solasaldi ontzen dituzte gure ikasleek DBHko lau urteetan?”

TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

Gasteizko 1976ko espirituari ekin

MARTXOAREN 3AN 37 urte bete ziren Gasteizko San Frantzisko Asiskoren elizaren barruan grebalaria egin ari ziren bileran poliziak sarraskia burutu zuenetik; hainbat zauritu eta bost hildako izan ziren. Haien izenak: Romualdo Barroso, Pedro María Martínez Ocio, Francisco Aznar, José Castillo eta Bienvenido Pereda. Geroago, poliziak Basaurin eta Tarragonan Vicente Antón Ferrero eta Juan Gabriel Rodrigo hil zituen. Gasteizkoa eta ondorengoak gogoratzeko, Martxoaren 3ko Biktimen Elkarteak 2011n muralak jarri zituen Gasteizko langileak eraildako tokian, elizaren aldame-neko hesian. Muralak honako leloa zuten: *Oroimena, Egia, Justizia*. Bada, elizaren egungo erretoreek muralak kendu zituzten joan den urtarrilean eta ohar laburra kaleratu zuten: “Urte berri on, muralak kenduta”.

1976ko egun hartan Gasteizen gertaturikoaren oroimenak, ordea, oso bizirik segitzen du eta segituko du. Egungo langile klaseak eta herri sektoreek halako espiri-

tu erreboltaria izatea eskatu beharko genuke. Euren eskubideen aldeko greba orokor hartan, milaka gasteiztarrek espiritu iraultzailea, solidarioa, feminista eta asanblearioa izan zuten, eztabaida eta aldarrikapena uztartuz. Kapitalismoa izan zen, ohiko politikarien bidez (Fraga, Martín Villa...), mugimendu hura gelditu nahi izan zuena poliziaren sarraski hura bultzatuz. Egungo egoera askoz larriagoa da, bai lanean, bai kalean. Gasteizko 1976ko hura jarraitu beharreko adibidea da, kapitalismo basatiaren kontra. Kenduko dituzte omenaldietako kartelak, San Frantzisko elizako apaizek egin duten gisan, baina ezingo dute zapaldu oroimen bizia, eta are gutxiago 1976ko espiritu hura. Euskal Herriaren espiritu horri ekitea omenaldirik onena litzateke Gasteizen, Basaurin eta Tarragonan kapitalismoak hil zituen langile haien alde.

Juan Mari Arregi





ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

Aitzearra, 1
Zumartegi industrialdea
☎ 943 37 11 50
20170 Usurbil (Gipuzkoa)
www.atxegajauregia.com



Viomihaniki: Nagusiak ezin badu, geuk eginen dugu

Otsailaren 12tik berriro lanean ari da Greziako Tesalonikan Viomihaniki Metalleytiki faktoria. Eraikuntzarako gaietan berezitua, XXI. mende hasierako krisitzarrak harrapatu zuenetik gainbehera etorria zen. 2011tik sosik kobratu gabe biziraun dute langileek. Azken hilabeteotan langileek autogestioan kudeatutako alternatiben ikur bihurtu da.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

ALBISTE ITXAROPENTSUAK BEHAR dira, diote ARGIAko lankide gazteek. Arrazoiz. Mundua ziklo ekonomikorik eta krisirik gabeko Arkadia kontsumistatzat margotzen zuten hedabide handiak orain sistemak baztertutako herritarren zaurietan jolasten dira, oro katastrofe. Ez al da inor ari irtenbide bila hainbeste hondamendiren artean? Baietz.

Otsailaren 14an Interneteko ARGIAk eman zuen albiste itxaropentsu horietako bat: “Langileak autogestiorantz Grezian. 2011ko maiatzaz geroztik soldatarik jaso ez duten Vio.Me fabrikako langileek eraikina okupatu dute, Greziako Tesalonika hirian. Jabeek fabrikatik alde egin zuten aspaldi, eta langileek euren kontrolpean berrabiarazi dute. Autogestioaren bidez aurrera egitea posible dela erakutsi nahi dute”. Bi egun lehenago produkzioa hasia zuten Tesalonikako usina hartan. Ezagutzeko istorioa dauka.

Interneteko bilatzaileei galdetuz gero “Viomihaniki Metalleytiki”, 2011z geroztik Tesalonikan bezala Atenasen burutu dituzten anitz mobilizazioen oihartzunak aurkituko dituzu. Grezia osoan baina baita munduan ere elkartasun uhin handia sortu da nagusiak abandonatutako obrero horiekiko. Baina laburduraz Vio.Me deitzen duten horren bilaka-

bidea ezin da ulertu Philkeram Johnson konpainiarena ezagutu gabe.

1961ean Philippou familiak eta Christos Constantopoulosek sortu zuten Philkeram, teila eta zeramika gaietan aritzeko (Philkeram, hortik izena), ordura arte eraikuntzarako osagaiok Italia eta Espainiatik inportatzen baitzituzten. Philippoutarrek, harro aldarrikatzen dutenez, 120 urte zeramatzen teilagintzan.

40 urte geroago, 2000.ean, 350 behargin zeuzkan 4,5 milioi metro karratu zeramika ekoiztu eta 29 herrialdetara esportatzeko, bidean kapital ingelesa sartu eta Philkeram Johnson bihurturik. XX. mende hondarretan ISO zertifikazioak eskuratu, AEBetan sartzeko filiala sortu eta sei milioi euro baino gehiagoko inbertsioak egin zituen.

Dena zen laudorio Philkeram Johnsonentzako krisia buru gainera erori zitzaion arte. Ekonomia atalen bat kolpatu baldin badu krisiak, eraikuntza izan da. Salmentek hondoa jo, argindarraren eta gasaren prezioak gora, hartutako kredituen konpromisoei ezin erantzun, dena joan zaio gain behera.

Puntako zeramikagile izandako horren adarra da Viomihaniki Metalleytiki, eraikuntzarako gaien produkzio eta salmentan ari dena. Honetako langileak 2011ko maiatzean ohartu ziren ugazabak ez ziela

Viomihaniki Metalleytikiko (Vio.Me) langileek beren webgunean ipinitako argazkian, fabrikaren lehenbiziko lan eguna, otsailaren 12an, telebista eta kazetariak konbidaturik. 2011n ugazabak abandonatuta utzitako faktoria beren gain hartu dute 40 langilek. Estatuari eskatzen diote enpresak zor dizkien diruak pagatzea, Vio.Me bizirik atxikitzeko behar dituztelakoan. Esaterako, gas eta argindar enpresekin gogor negoziatu behar izan dute, bati 2,6 milioi dolar eta besteari ia milioia zor zitzaielako. Langileek beren soldatak erdira jaitsi behar izan dituzte, aurrezkuarekin zurezko paletak erosi ahal izateko. Interneten eskegita daukaten *Bio.Me They cannot! We can!* (“Haiek ezin dute! Guk badezakegu!”) bideoan esplikatzeko dutenez, erabaki nagusiak batzarretan hartzea erabaki zuten prozesuan aurreratu ahala eta horrela darraite. Irudi txikian, Vio.Meren logoa daraman afixa.

jornalik sartu kontu korrontean. Beharginek ekin zioten antzeko kasuetan hasten den kalbario luzeari: legezko erreklamazioak egin, protesta, manifestazioa, itxialdia...

Iritsi ziren arte nagusiak abandonatu zituen konbentzimendura. Pittinka hurbildu ziren aurreko krisietan leku askotan, tartean hainbeste kooperatiba eta SAL sortzen ikusia den Euskal Herrian, mahairatu den argudiora: “Nagusiak ezin duela segitu? Geuk egingo dugu!”.

Autogestioaren zalantzak

Pertsonalitate ezagunek azaldu diete atxikimendua Viomihaniki Metalleytikikoei: Naomi Klein, Avi Lewis, John Holloway, David Graeber, Raúl Zibechi... Langileek erabilitako argudioak eta ikonografia kazetari honek oso oker ulertu ez baditu, anarkismoan, sozialismo libertarioan edo ekologia politikoan, globalizazioaren kontra, kokatzen diren jendeek.

Otsailaren 10ean Tesalonikako antzoki batean langileekiko elkartasunezko batzarra egin ondoren, 11n kantaldi handia burutu zuten estadium batean, tartean zirela Thanassis Papakonstantinou eta beste hainbat abeslari eta talde. Biharamunean ekingo zioten obreroek benetako borrokari, bizirautean saiatzekoari.



Faktoriaren bizialdi berriaz elkarriketa egin zion langile batzordearen buru den Makis Anagnostouri *Nea Prooptiki* kazeta elektronikoak, gero Vio.Meren gunean ingelesez erakusten dutena. Anagnostouk hasteko eskertu ditu lantokia okupatzea erabaki zutenetik laguntza eskaini dieten guztiak, bi euro edo zorro bat indaba ematera hurbildu zaizkienak.

Kontatu ditu ere sindikatu nagusiekin eta ezkerreko taldeekin izandako harreman eta gorabeherak. Viomihanikiko obreroek batzarretan hartutako erabakiak ez dira beti bat etorri sindikatuetatik proposatzen zitzaizkirekin. Lehenbizi Greziako Langileen Konfederazio Nagusira (GSEE grekerazko siglak,

gure hizkietara ekarririk) jo zuten eta ez ziren ados jarri sindikalistek gomendatu zitetenean greba egitea ugazabek enpresan kapitala sarrezaten presio egiteko.

Gainerakoan, krisi garaian enpresa beren esku hartu duten beharginen eta ezkerreko militanten artean beti egongo diren eztabaida eta zalantzak egon dira Tesalonikako hauen artean ere: ez ote den kapitalari jokoia egitea, langileak ez al diren aldaketa gogoez ahaztu eta sistema barruan jokatzeko hasiko, eta beste.

Iazko urrian Tesalonikatik hasita Larissa eta Volosen barrena Atenaserainoko ibilaldia egin zuten langileak. “Ordura arte –deklaratu du Anagnostouk– lankide asko zalan-

tzan baldin bazeuden, ez zekitela mugimenduan sartu ala ez, bukaran garbi esan zuten mobilizazioa berriro egitekotan haiek parte hartuko zutela”.

Martxo hasiera honetan bizirau-pena izango du buruhauste nagusi Viomihaniki Metalleytikiko jendeak. Elkarrizketan Anagnostouk dio planak badituztela oso ahul dagoen merkatuan ere beren materialak ekoiztu eta saltzeko, ondo ezagutzen dutela ofizioa, kosteak murriztea lortuko dutela, Greziaz gain Balkanetan ere saltzeko modua egiten dutela.

Pioneroak ote diren amildegira kondenatutako greziarren artean? “Ez nuke esango pioneroak. Gure eskaria beti izan da lehentasuneko langile jendearentzako. Lanean ari denak, areago industrialak, beti eduki du itxaropena produkzio tresnak bere eskuetan hartu eta bere kabuz produzitzeko gai izateko. Baina burgesiak urte luzez eta orain ere langileak hipnosi batean dauzka, norabide horretan pentsa ez dezan”.

Vio.Meren gunean irakur daiteke elkartasuneko mezu eder hau Egiptoko Ramadan Citytik bidalia: “Egiptoko Kouta siderurgiako langileek Greziako Vio.Meko faktoria-koei!”. Egiptoko langileek ere austerritate deitutako neurriak arbuatuz, konbidatzen dituztela batzuek eta besteak autogestioan egiten ari diren esperientziak elkarrekin partekatzen. “Milioika langile dauz-kagu begira, espero zuten ametsa mamitzen ari garelakoan”. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Zer dira MS5 eta Grillo?

BEPPE GRILLO-REN Bost Izarren Mugimenduak (M5S) ezusteko itzela ekarri du Italiako hauteskundeetan: alderdirik bozkatuena izan da, botoen %25,55 lortu du eta 109 eserleku diputatuen garban. Koalizioak medio, zentro ezkerreko Pierre Luigi Bersani eta eskuineko Silvio Berlusconi lehen eta bigarren indar gisa geratu dira, hurrenez hurren, baina bototan MS5 haien alderdien aurretik.

Europako Batasuna astoratu duen emaitza da M5Srena eta, ezustearekin batera, galderak pila-tzen dira ezker-eskuin: zer da M5S? Zer dago haren atzetik? Zer egingo du orain gobernu eraketan? Eta legealdian?

Denetarik entzun eta irakur daiteke mugimendu hau eta bere lidergoarekin katalizatzaile lana egin duen Beppe Grilloren gainean. Egungo gizartearen eskuin zein ezkerreko sostengatzaileen aburuz, izurritearen gisakoa da, Italiari –eta Europar Batasunari– sekulako kaltea egin diezaiokena. Egiazki, sistemaren babesle hauek eta krisia izan dira M5Saren akuilu garrantzitsuenak.

Ezker alternatiboaren lerroetatik ere ziztada ederrak eskaini dizkiote: “Itxura eta erretorika iraultzailea gorabehera, uste dugu azken urteetan dagoenaren defendatzaile eraginkorra izan dela M5S (...) Tapoi gisa funtzionatu duen indar bat, sistema orekatzeko”. Kritikatu zaio aldarrikatzea ez dela ezkerrekoa ez eskuinekoa. Arrazakeria. Populismoa. Liderrik gabeko alderdian Grillo lider handia izatea. Sarearen erabilera ikusmolde liberale-



WWW.SCHWELTZFINANCE.COM

nean erabiltzea. M5Sko markaren erabilera autoritarioa (hau da, berak baimendutakoek bakarrik erabil dezaketela...).

Grillok dagoeneko jakinarazi du ez duela sostengatuko Bersaniren gobernu, eta legez lege izango duela beren sostengua edo arbuioa, Sizilian egiten duten gisan. Han ezkerreko koalizio baten izenean gobernatzen du Rosario Crocetta karismatikoak, eta MS5aren sostengu handia izaten ari da bere politika askorekin.

MUGIMENDU zabal eta oso anitzta da Grillorena, politika egiteko orain arteko molde zahar eta ustelen aurka hazi dena, politikari profesionaletan baino, orain arte

Denbora beharko da esperientzia politiko berri honen nondik norakoak hobeto ezagutzeko eta baloratzeko

bederen, herritarren jardunean oinarritu dena. Bere pertsona eta ideien aniztasun horretan egosiko dela iragartzen diote analista ugari eta –batez ere– bere aurkariak. Baina ez da zalantzarik bere ibilbi-

dean Europa osoan protestan ari diren herritarren lelo eta pentsamoldearekin bat egiten duela neurri eta gai askotan: agintarien soldata murrizketak, iruzur fiskalaren aurkako neurrien beharra, garden-tasuna, azpiegitura erraldoietan diru xahuketarik ez, erraustegien aurkakoa, deshazkundera, energia eta baliabideen erabilera arrazionala, bankuen nazionalizazioa baldintza zehatze-

tan izanez gero, mikrokreditoen bultzada, uraren publikotasunaren aldarrikapena...

Denbora beharko da esperientzia politiko berri honen nondik norakoak hobeto ezagutzeko eta baloratzeko, baina krisi gogorrek bizi dituzten herrialdeetako herritarren nahi eta sentimendu askorekin bat egiten duela.

Izaera eta itxura desberdina duten mugimendu asko sortu eta garatu dira munduan azken hamarkadan, bereziena eta indartsuena Hego Ameriketako XXI. mendeko sozialismoaren inguruan egituratu dena, baina baita bestelakoak ere: Islandiak bere finantza iraultza txikia egin zuen, AEBetan *Occupy* dago, Grezian Syriza, Espainian M-15, orain Italian M5S...


Bakoitza berean eta bere ezaugarriekin ari da, baina guztiak neoliberalismoak dakarren hondamendiaren alternatibetan sakontzeko prest, bestelako munduak eta gizar-

teak posible direla aldarrikatzen duten ikusmoldeetan oinarrituak. M5S uholde horretan kokatzen den ikusi beharko da. ■



ASTE HONETAKO

zozketak



-alde Zaharra- Donostia

A fuego negro jatetxea

2 lagunentzako afaria

Abuztuaren 31, 31
Donostia GIPUZKOA

www.afuegonegro.com

1

AQUARIUM
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

Donostiako Aquariuma

4 harpidunentzat
bina sarrera

Carlos Blasco de Imaz plaza, 1
Donostia GIPUZKOA

www.aquariumss.com

2

Ekain berri

3 harpidunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3

Bilboko Euskal Museoa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

4

888 txiste
Kike Amonarriz

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2358. Argia)

DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Xabier Zuzuarregi Salaberria (Zizur Nagusia)
- Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)
- Euskal Birusa (Ermua)
- Arantxa Aizpurua Arruti (Zarautz)

EUSKARA - FINDLANDIERA Hiztegia

- Joxe Anjel Arbelaitz Irastortza (Donostia)
- Santos Mendia Agirre (Tolosa)
- Ramon Andrinua Lazkano (Bilbo)
- Juankar Bermejo Mateos (Laudio)
- Xabin Mujika Tolaretxipi (Azpeitia)

EKAINBERRI

- Jose Mari Ogando Rodriguez (Lekeitio)
- Mikel Escudero Aizpurua (Deba)
- Juan Domingo Barahona Prol (Eibar)

HURA EZ DA LEKUA liburua

- Ibon Manterola Garate (Azkoitia)
- Iñaki Osoro Otardui (Eibar)
- Maria Dolores Uriarte Ballarena (Barakaldo)
- Esteban Etxeberria Urreaga (Hernani)
- Julen Gorostizaga Elu (Arrankudiaga)

OKATXU komikia

- Imanol Arluziaga Esnal (Donostia)
- Joxemari Muxika Arrieta (Arrasate)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30
Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com
www.argia.com/gunea

Gunea

argia





Berdin gehiago da.

Errespetua, Jakintza, Ongizatea, Demokrazia

Berdintasuna: gizarte osoari mesede egiten dion giza eskubidea

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

Erakunde Autonomakuna
EUSKO JAURLARITZA Organismo Autonomo
GOBIERNO VASCO